1972 — URTARRILLAK, 16 XXXIII - garren urtea 463 - Zenbakia

zeruko
# ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA: 7 PEZETA

## NON ZER


- ZENBAT GARA
  Amatiño ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 4 garrenean
- QUEBEC-EKO BERRIA
  Iza ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 5 garrenean
- LANGILERIAREN LITERATURAZ
  Azurmendi ... ... ... ... ... ... ... ... ... 6 garrenean
- ESAERA ZAHARRAK
  Intza ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 6 garrenean
- GASTEIZTIK
  Knörr ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 7 garrenean


# M A T T I N

# "erria alaitzen saiatzen naiz"



Txorakeria aundia litzake, noski, Treku dela, bertsolaria dela, Ahetzen bizi dela eta orrenbeste urte dituela esanaz astea. Mattin, Mattin da. Ez du beste deitura eta ezaugarri beharrik nor den jakiteko.

—oOo—

Ahetzen gaude. Mattinen baserrian. Il onen 16an, Astoria zineman, Mattini eskeiñiko zaion omenaldiak eraman gaitu bertaraiño.

—Aizu, Mattin, noiz asi ziñan bertsotan?

**—Ez dakit ba. Amabost bat urtekin edo. Gazte nintzelarik etortzen zen zahar bat basotik berdozturik eta kamioaren erdian jarri eta biok bertsotan aritzen ginan. Arek bertsoa bota eta nik ere ahal nuena. erantzun. Tabernan ere aritzen nintzen Mattin Olaxuria eta Senpereko heste zahar batekin. Kantu zahar asko ere banekien. Aitonek eta amonek ere gogo aundia zuten kantu zaharrak kantatzeko eta nik ikasteko irrika bizia, berriz. Baziran gure aurrekoetan ere, amaren aldetik, bertsolariak.**

—Orduan jarduten zenduten orain bezala plazan eta?

**—Ez. Tabernan bakarrik pixka bat berotutakoan. Ni mutikoa nintzela ikusi nituen Getaria eta Ustaritzeko plazetan, baiña ez zen ohiturarik. Bestaldean ere ez zen orduan plazetan orrenbeste kantatzen. Txirrita eta asi ziren zerbait. Pernando amezketarrak eta ere egin zuten saio bat Billabonako plazan. Baiña apustu bezala.**

—Noiz asi ziñan beste aldera bertsotara joaten?

**—Berrogei-ta-zazpian edo onelatsu. Berrogei-ta-seian egin zen Donibanen emengo bertsolariekin. Gero ara joan giñan Xalbador eta biok. Gazteen sariketa zen Zarautzen. Basarri, Uztapide, Xalbador eta ni ibiltzen giñan gehienetan.**

—Bertso-zaletasuna gehitzen ala gutxitzen ari dela iruditzen zaizu?

**—An gehitzen eta emen gutxitzen. An beti jende asko izaten dugu. Baita gazteetatik ere, nahiz baserritar nahiz kaletar.**

—Emen zaletasuna galtzen ari dela esan duzu. Zergatik?

**—Emen gazteak prestatzen ez direlako. Emen ere lagunduz gero aterako lirake. Pelotariek edo abeslariek edo soiñu-joleek jarduten ez badira eta obeagoekin ibiltzen ez badira, ez dute aurreratzen. Berdin bertsolariek ere. Bat nor bere erriko eskolarekin gelditzen bada, Unibersidade batera edo atera gabe, ez diteke jakintsu izan. Asko dira berenez oso argi direnak, baiña ez badute ikasi ezjakin dira.**

—Batzuk esaten asiak dira: abeslariak eta zuek bertsolariok asko kentzen duzuela. Asko kobratzen duzuela iruditzen al zaizu?

**—Guk, prailleak bezala, emandakoa artzen dugu. Jakiña guk ere baserriko lanak utzita joan behar izaten dugu. Ibiliak bere kastua du. Bertsoa sumatzeak bere nekea. Jan-edanak, osasunerako, bere kaltea. Galeran ibiltzeko ez gera gu aberatsak. Baiña utsean ere ibiltzen gera zenbait aldiz premia batzuetarako dirua bildu nahi danean zenbait erritan. Baiña gehienetan, gu joaten geranean, sarrerarekin izaten da. Biltzen bada bidezkoa da lan egin duenari ordaintzea.**

—Gaur beste zerbait gehiago ere esaten du zenbaitek zuetaz. Zorakerietan denbora galtzen omen duzue. Ez omen dizute Erriaren arazoengatik ajolarik.

**—Ajola! Bertsolarioi ere ajola zaigu Erria. Baiña beti ezin esan, nahi duguna. Alderdi ontan bai, edozer esaten dugu. Emen ez da ezer gertatzen. Baiña guk ezin esan edonon sentitzen dugun eta ahora etortzen zaigun guztia. Gaiñera beti kezkatsu bizi behar al dugu?**

—Bai ona da jendeari zenbait kezka eta larri ahaztuaraztea, baiña ondo iruditzen al zaizu Erriaren arazoak ahaztuaraztea?

**—Ez dut uste bertsolariok Erriari bere kezkak ahaztuarazten dizkiogunik. Bihotzean daramagu guk ere Erria. Min ematen dit orrenbeste euskaldun elkarren aurka ibiltzeak. Nik familia batean ezin konpondua ikusten badut pena artzen dut. Guk familia elkartu bat izan behar genduke. Nere ustez bertsolaritzak mesede aundia egin dio euskerari eta Euskal Erriari. Asko dira alderdi ontan ere Euskal Erria gora eta Euskal Erria behera jarduten direnak, baiña gero beroiek dana erderaz, ots frantsesez egin...**

—Zuk bertsoa oso azkar botatzen duzun sona duzu. Zergatik ain azkar botatzen duzu? Erraz ateratzen zaizu ala?

**—Ona zer gertatu zitzaidan egun batez. «Gurelesa» esne-etxekoak zebiltzan emen jira-biran eta bazkaltzerakoan ala esan zidan Lehendakariak: «Oraingo bertsolariok oso mantso, oso geldi, botatzen duzue bertsoa. Minutu osoa behar duzue. Lehengoek minutu erdia nahikoa zuten». «Nik ere baietz bota minutu erdian», erantzun nion. Minutu laurdenean amaitu nuen. Azkar edo geldi ori ohitura bat besterik ez da. Geldi botatzen duenak beta gehiago dauka pentsatzeko. Bertso obea egin dezake. Azkar botatzea baiño obea da geldi eta txukun abestea.**

—Zuk parra egin erazteko bertsoetan balio duzu gehiena?

**—Serioetakoan ere egiten dut ahalegiña. Baiña neri gehiago gustatzen zait jendeari parra eragitea. Eta jendeari parra egin araztea oso garrantzizkoa da Erri baten bizitzan. Atzo bertan entzun nion bati telebisioan: parra eragiten zekiten gizonak gutxi zirela. Oso gutxi. Eta onelakoei ondo ordaindu behar zaiela. Beti ez da bat jendeari irria ateratzeko aldartean egoten. Telebisioan ikusi nuen Luis Marianori gertatua ere. Kantatzera erten baiño ogei minutu aurretik ama il zitzaiola esan zioten. Bost milla pertsona zeuden ari entzutera joanak. Iñork igerri gabe abestu zuen. Nik ere ez dut beti barrua alai edukitzen, baiña jendea alaitzen saiatzen naiz.**

—Zuk uste duzu bertsolari saio bat zenbat eta obeto gertutzen dan orduan eta obeto ateratzen dela?

**—Bai, noski. Zenbat eta gaiez, tokiz eta gai-jartzaillez obeto eratua orduan eta obeto egiten da. Jendea isillago, entzuten adiago. Bertsolaria saiatuag. Eta jakiña bertso ona botatzeko bertsolari bakoitzari dagokion gaia jarri behar zaio ahal dela.**

—Gaur jarduten zeraten bertsolarietan zein iruditzen zaizu onena?

**—Danak dira onak. Zer gai duten ere alde aundia dago. Batek ez du gai guztietarako balio. Xalbadorrek beti nik baiño obea egingo du gai serioetan. Baiña parra egitekoetan saiatzen naiz ni ere nerea egiten. Pelotariek ere batzuk aurrelari dira. Besteak atzelari. Batzuk banaka dira onak. Besteak binaka.**

—Zu, Mattin, Lapurdikoa zera. Ez al zaizu iruditzen bestaldean askotan ez dizuela ulertzen?

**—Ez dut uste. Nik ez dut erranen Xalbadorri eta neri den-dena ulertzen digutenik. Baiña asko bai. Ez dut uste ainbesteko aldea duenik angoak eta emengoak. Ohitu egin behar da piska bat. Belarriak jarri behar du. Angoa eta emengoa pixka bat irakurri. Angoek eta emengoek arremanak izan. Itzegin. Ahalegintxo apur bat eginez gero ez dut uste ain zailla denik elkarri ulertzea.**

—Erriak zergatik aukeratu zaituela iruditzen zaizu omenaldi ortarako?

**—Zaharrenez aurrera egin behar zela erabaki zuten. Eta zaharrena ni naiz.**

—Baiña ez zaizu iruditzen jendearengan alako maitaun berezia sortzen duzula alai eta graziz abesten duzulako?

**—Ahalegiña egiten dut gustoa egiteko.**

—Eta egun ortan jendeari parra ala negarra egin arazi behar diozu?

**—Ez dakit, ba. Nik ez nioke negarrik eragin nahi. Baiña bat biguindu egin ohi da onelako egunetan. Eta parra egin araztea zail da.**

—Kanta iozu an bilduko den eta ainbeste maite zaituen jendeari bertso bat.

**—Omenaldiko deia artu dut nik
[aurten
alako suertia ez da noiznai izaten
jendea bilduko dela nola erran
[duten
ortan probatuko dut zenbat mai-
[te nauten.**

ERRIALDE

# BERTSO BERRIAK

— 1 —
O, Mattiñ, biotz biotzekoa:
Zugana nator kantari
al dedantxoa erantsi nairik
laister dezun omenari.
Ta, zer eskeiñi ni ez bezela
doaiz betea danari?
Poz apurtxo bat berak ainbeste
poztu oi gaituanari.
— 2 —
Amaika bider jarduna zera
gure plazetan bertsotan,
ta ainbat aldiz zuri entzunaz
murgildu gera gozotan.
Aspalditikan bagiñan ere
omen bat egiñ asmotan
begira nola Euskalerriak
artzen zaitun gaur besotan.
— 3 —
Umore onak ez ote zaitu,
Mattiñ, zu bere jabea?
Bertso alaiak bizkor jaulkitzen
zein da beste bat obea?
Bildurrik gabe, baina gizonki,
txikia baiña trebea,
euskal arraza ondratzen dezun
pikaro gaitzik gabea.
— 4 —
Danok dakigu sentimentuak
azaltzen badakizula
eta gai alai jostalariak
ere maite dituzula.
Jakiñ ezazu zure irterak
txit pozgarri zaizkigula
ta zure gatz ta piperrik gabe
xaltxarik ez daukagula.
— 5 —
Zure irudi irripartsua
guretzat ain da xamurra,
algaraz nola baretzen duan
gure kopeta zimurra!
Orretarako asko da entzun
zure lenengo agurra.
Mattiñ: Zu zera guri biotzak
osten dizkigun lapurra.

Lagun artean apala zera,
bertso saioetan berdiñ,
giza-legea nola bear dan
ondo dakizu zuk Mattiñ.
Mundu koxkor au zure jardunak
biurtzen du zeru urdiñ
zorioneko aingerutxo bat
sortu zalako Lapurdiñ.
— 7 —
Zurekiñ alai izan diteke
bat nora naira joanik.
Nola ez bada, zeran bezela
alaitasun uts izanik?
Eta gaiñera ez degu uste
gure anai ez zeranik,
euskaldun bakar bat bai ote da
zu maite ez zaituanik?
— 8 —
Mundu onetan bizi bearrak
beti du zerbaiten arra,
illunaldiak ere sarritan
dago igaro bearra.
Baiña zuk jarrai, Mattiñ, ixiltzen
lagun urkoen negarra,
kezka askoren estalgarria
nola degun irri-parra.
— 9 —
Bakoitza bere arazoetan
egon arren murgildurik
gure biotzak ez daude beintzat
oraindik oso zaildurik.
Laister gaituzu maitale danok
zuregana urbildurik
gure omena laztan eskeintzen
an Donostian bildurik.
— 10 —
Artu ezazu bada biotzez
gure omen maitekorra,
euskaldun danok opa bezela
izan dedilla jatorra.
Euskalerriak au egitea
zuan oso derriorra
ia onela ordaintzen degun
guztiok dizugun zorra.

*Inozenzio Olea*

## ZAR - SARI - DUN BATEK ESANAK

— 1 —
Lanian aritu naiz
denbora luzian,
berrogei ta amar urte
asirik bazian.
Sasoi naukan artian
ajolik etzian,
poz bat ere banaukan
nere biotzian,
ederki bizitzeko
erretiratzian.
— 2 —
Garaiz asia nintzan
langintza fuertian,
amabost urte eskas
nituen artian.
Beti lana egin det
lantegi batian,
uzteko edadia
eldu bitartian
orain iritxi da ta
neretzat kaltian.
— 3 —
Etziran olakoak
nik nauzkan ustiak,
menderatua nauka
naigabe tristiak.
Lanean igaroaz
luzaro astiak,
pakean bizi giñan
etxeko guztiak,
orain ezin konpondu
zar eta gaztiak.
— 4 —
Igaroa izanik
len ainbeste neke,
atseden peketsu bat
orain bear nuke.
Arkitzen naizen eran
ori ezin leike,
lortu al-banezake
nekearen truke,
berriz lanean pozik
asiko nintzake.
— 5 —
Zar-saria omen da
ematen nautena,
oso izen ederra
jarri diotena.
Egun gutxi bear da
gastatzeko dena,
gero noiz iritxiko
illaren azkena,
au altzan azkenean
merezi nuena?
— 6 —
Bakarrik banitz utsa
zerbait moldatzeko,
baiña bagera iru
andik mantentzeko.
Jakiñik asko bear
dala bizitzeko,
ia zer karga geran
etxekoentzako,
lenago eziñian
dabiltzanentzako.

Beste batzuek berriz
ain sari bapuak,
neke gutxiagokin
dituzte lortuak.
Guk lana egin eta
aiek merituak,
derrior bear dute
urri gelditúak,
batzuntzako ba-dira
besteai kenduak.
— 8 —
Len nola edo ala
erremediatzen,
orain berriz iñola
ez diot billatzen.
Diru utsez bizitza
ez degu osatzen,
baiña degun artean
obeto konpontzen,
gabe da zailla emen
pakean bizitzen.
— 9 —
Norta nai ez datorkit
alderdi makala,
gorputzean ximurtu
bear zait azala.
Len irabaziakin
biziko nintzala,
norbaiteren ustea
izango zan ala,
lendabiziko berak
proatu dezala.
— 10 —
Jaunari esker nago
sano ustekua,
ezer bada auxe da
estimatzekua.
Apetitua daukat
lengo modukua,
asko bear da ezin
sortu jatekua,
errejimena daukat
bete-betekua.
— 11 —
Ezta baida guziak
ortatik datozte,
gazteak arrazoia
dutela nik uste.
Konprenditu bearra
daukagu ainbeste,
goitik legeak ala
jartzen badituzte,
kulpa guziak berak
izango dituzte.
— 12 —
Zenbait ametsa egin
ezpanu naiago,
onela bizitzerik
luzaro ez dago.
Berez gure azkena
urrean badago,
iritxiko ote dan
beldurtua nago,
bear lukean baiño
ondotxoz lenago.

Joxe AYERBE

# NERE BORDATXOTIK

Joan dan aste ortan anka-sartze bat egin nuen, noski.

Ekaina jarri bainuen urtarrillaren tokian ilbeltza izendatzeko.

Ari danari gertatzen zaizkio ola-moduzko okerrak ere; barka zaidazute, beraz.

Beste zerbait ere bai.

Azkoiti-ko berriak emango nituela agindua nintzan.

"Endañeta" aundia gerritako miñez, eta amabost eguneko atzerapena eskatu bearrean gertatu.

Azkoiti-n zer ikusirik ez, eta nik emandako itzik betetzerik ez.

—oOo—

Astetik astera argitaratzen da "Zeruko Argia".

Asteroko batek ez dauka eguneroko bati kontra egiterik. Aste barruan ainbat gorabera gerta ditezke...

"Endañeta" ta Yurrebaso-ren arteko jokoan izan lezaken atzerapenik aundiena amabost egunekoa da.

Au dala-ta, ilbeltza edo urtarrilla-ren ogeitairugarren eguna izendatu zuen "Endañeta-k".

Zai gelditzen gera.

—oOo—

Atzerapen onen kontu ematera gure etxera etorri zan "Endañeta".

Auek dira aren aotik entzun nituen itzak:

"Amabost egun oiek igarota ondo jartzen ezpanaiz, etxean nere gustoko lanik egiten ezpadet, joko osoa aglduko det burrukatu gabe.

Ni ez noa plazara jendearen aurrean lotsagarri gelditzera".

Oni esaten diot nik egitazko gizatasuna.

Obe da milla peztako batzuk galtzea norberaren izen ona galtzea baiño.

Dirua berriro eskuratu diteke. Galdutako izen ona ez.

—oOo—

Au da euskal kirol edo deportetara zaleak geranok nai gendukena: "Illaren ogeitairurako "Endañeta" erabat sendatzea; bere onera etortzea.

Ez diogu ainbat begiratzen galdu-irabaziari.

Ba-dakigu bentaja ikaragarria eskeintzen diola Yurrebaso bizkaitarrari; ba-dakigu jasoaldi bakoitzean kontrarioak baiño bi arrua geiago dantzatu bear dituela.

Guk amabost arruako arri kubikoarekin lanean ikusi nai degu; ematen dizkion jasoaldiak kontatu nai genituzke.

Zergatik?

Berealaxe jakingo dezute.

—oOo—

Aurrekoan nion bezela, Euskalerria Euskalerri danetik, gizon bakarra baita amabost arruako kubikoarekin plazaratu dana: "Urtain".

"Urtain-ek" egindako lana ezaugna zaigu.

Iñork ez dakigu "Endañeta-k" zer egin lezaken.

"Urtain-ek", egia esan, jokatu zan egun artan, egin zuen baiño ondotxoz geiago egingo zuen kontrarioak artara beartu balu.

Etzuen premirik izan; etzeukan alperrik abildade ugzia erakutsi bearrik.

Gaur, igandea, "Mattin" ahetzetar bertsolariaren omen eguna Donosti-n.

Gaitz da "Mattin" maite ez duen euskaldun bat aurkitzea.

Alaia, jostalaria, umorez gaiñezka dagon gizona, baiña txarkeriaren berri ez dakiena. On utsa; jator utsa.

Berak egin parre, ta besteei egin-erazi. Ontan dijoa "Mattin-en" mundualdia.

Merezi bezelako bertsoak moldatu dizkio Inozentzio Olea legazpiar bertsojartzaille trebeak; neurrira datozkionak.

Emen dituzute aldamenean, eta irakurri arretaz. Irakurtze utsa baiño kantatzea obe.

—oOo—

Ez da atzo goizekoa euskaldunen urutiratzeko griña.

"Auñamendi" izeneko bilduman (kolezioan) liburu bi azaldu dira ontaz.

"La emigración vasca", liburu auen izenburua.

Pierre Lhande jesuita argiak idatziak eta Inazio Basurko jaunak frantzesetik gaztelerara (kastellanora) itzuliak.

Garai batean beartua zegon euskalduna tokiz aldatzera.

Gure mendi malkarretan etzegon danentzat ainbat sortzerik.

Famili ugariak amarretatik bederatzitan. Zarrena gelditzen zan etxerako: maiorazkoa.

Gaiñontzekoak al zuten tokira jo bear ogi billa. Etzan gaurko industririk Bidasoz onuzko euskal errietan ere.

Bidasoz aruzkoak, zorigaitzez, oraindik ere erren dabiltza ontan.

—oOo—

Millaka askok artu dute azken urte auetan Amerikarako bidea.

Pierre Lhande-ren asiera:

"Para ser auténtico vasco, se requieren tres condiciones: llevar un apellido sonoro que indique el origen; hablar la lengua de los hijos de Aitor, y... tener un tío en América".

Beti izan du alakoxe inbiri kutsu bat euskaldunak indianoarengana.

Ondo dabiltzanak ikusten ditugu; zerbait diru egindakoak azaltzen dira beren sorterrira.

Baiña, zenbat milla anai pozik etorriko lirakenean, biajerako ainbat diru osatu eziñik!

1964-garren urtean moldatu nituen bertso bakar batzuk ez datoz itxuri.

—oOo —

Dana egiña uste du askok
kanpoetara joanikan,
txarra probatu arte ez degu
aintzakoz arten onikan;
edozeiñentzat ez da egiten
modu ortako lanikan,
ez gero pentsa ango bizitza
txantxetakoa danikan.

—oOo—

Ain urrutira ez da joan bear
errez ibili usteta,
bizimoduak berekin ditu
aldapak eta nasketa.
Diru pixka bat egingo dute,
arriztekoa ez da-ta,
baiña gorriak pasa ondoren
eta ederki kostata.

—oOo—

Batzuek ondo ikuste ori
oso zaigu atsegiña,
an eta emen, danok ez degu
egokiera berdiña.
Egi biurtzen zail izaten da
aurretik amets egiña,
makiña bati damutu zaio
lur ontatik aldegiña.

—oOo—

Intxaur beteak arki ustetan
zenbat or naigabetuak,
arpegi beltzez ikusten dira
erabat naigabetuak.
Denborak joanda alperrik dira
negarrak eta lantuak
pauso luzerik eman baiño len
ondo atera kontuak.

—oOo—

Zenbaiten diru mordoxkak dira
izerdi asko kosteak,
etorri nai-ta, ontziarentzat
osa eziñik besteak.
Aurretik jakin guzia ondo,
O, biotzeko gazteak,
ez du balio Euskalerria
edozein moduz uzteak.

—oOo—

Sorterria da geienentzako
danen gaiñetik dagona,
seme on bati babex goxorik
ukatuko ez diona.
Ta kristauari pentsamentu au
etorri bear zaiona:
"diru bakarrak ez dik egiten
gizonaren zoriona".

Basarri

BASERRIA
Baserri bat erosi edo errentan artu nahi litzake TOLOSA inguruko herri batean. Orrelako baserri baten berri dakiana, zuzendu bedi 811431 Urrutizkiña-ra. Azpeitia.

JASO s. a.
JASO-GAILLUAK
JASO-GAILLU-ZUBIAK
PERKINTZA
Idazkiak honera zuzendu: Apartado 29. Urrut. 89 18 20. ORDIZIA
ISASONDO (Gipuzkoa)

# Zaputz eta kalte ikaragarria

Danok dakigunez Tabera kardenala dugu Peninsulatik atzerrira joaten diranen arduradun nagusia, elizaren aldetik. Kezkaturik daukagu lehendakari agurgarri au, esbestean arkitzen dituzten arazoetaz. Azkeneko urte ontan argitaratu duen eskutitzean ume atzerriratuen eziera-arazo larria aipatu digu.

Onela dio beste gauza askoren artean: "Bihotz barruan itsatsitako zerbait dugu nork bere izkuntza. Zerbaitegatik artu izan da beti erri baten ezaugarririk jatorrena bezala".

"Zaputz eta kalte ikaragarriak sortu besterik ez dezazke egin umearen etxeko izkuntza batpatean moztu eta izkuntza arrotzean irakaskintza jarraitzeak... Bi kulturek erdibitu dute ume atzerriratua. Ez bata eta ez bestea bereganatu ditu behar bezala".

Badauzkate, jakin dugunez, Gobernuak berak ordaindurik, gaztelamiazko eskolak ume atzerriratuentzat Parisien esate baterako.

Zalantzarik ez dago; aurrari lur berrian itsasten lagundu behar zaio. Piskana-piskana egin behar da joan dan tokiko kulturaren jabe. Ez diteke bppatean etxeko girorik moztu. Ori aurra bihurritzea eta erdibitzea da.

Baiña au, nork bere aragian jasandakoak daki ondoen. Amaika ikusiak gaituzue, gure ikastetxeetan, erderarik ez genekianok. Ez genekian izkuntzn irakurri, idatzi, entzun eta ikasi behar.

Tamala benetan! Zenbat ikara, zenbat atzerapen, zenbat denbora galtze! Saiatuena ere etsiaraztekoa eta ukaraztekoa zen egiaz jokabide makur ura.

Eta onela gizaldiak eta gizaldiak Euskal Erriko seme-alabak, izkuntza eta kultura arrotzean ezi nahiez. Erderaz ondo zekitenen aurrean parregarri, arlote, gizajo eta ezjakin agertuz.

Eskerrik, ikastolak sortzeari ekin zioten euskaldun jator batzuek. Eta galdutakoak berpizteari, indartzeari eta zabaltzeari. Baiña oraindik gorago jo behar dugu. Euskal Unibersidaderaiño iritxi behar dugu.

Eta bitartean? Euskal girorik ez duen ikastetxe gehiegi dago baztetretan. Elizaren erakutsiei jaramonik egiten ez dion ikastetxe asko. Fraille edo mojen ikastetxe gehienak edo denak agian.

Eta zer esan delako eskola nazionalei buruz? Noizkorako legeak agintzen duen bi izkuntzetako eziera? Noizkorako eziera-legeak diona? Kondaira-zaleek begiak pozteko altxor bat izan dezaten urteen joanean?

Larehunhen bat eskola jasotzera omen doaz Gipuzkoan aur txikientzat. Gogoan izango ote arazo au? Kontuan edukiko ote torkiñen bertakotze au? Eskola ugaritze au ez ote da euskal-eskolak ustutzeko arrisku gertatuko? Gutxienik berriak sortzeko zailtasun bihurtuko?

# Euskal kirolak jokoaren serbitzuan

Euskal kirolak jokoaren serbitzuan, diot idazburuan, jokoak berezko balio eta erakarpenik ez balute bezala, morrontza lan bat bete arazten dietela pentsatzen dudalako.

Aipa ditzagun oraingotasun gehien dadukaten kirolak: korrikalariak, harrijasotzailleak, haizkolariak, idi-probak... eta denengaiñetik pelota-jokoa bere era guzietan. Euskotarren indar, kemen, bizkortasun eta trebetasuna agertzen dituzten jolas jator eta berdingabeak, hor dakusagu jokoaren interes maltzurrak neskametza merkerako eskuraturik.

Euskotarren jokorako zaletasuna gure kirol eta herri-jolas zaharrenak hainbat aitzinakoa omen. Gehiago oraindik: deporte hoiei, jokoko diruaren babesa euskarri dutenez, apustuaren ziztada kenduz gero, iraupena moztu egiten zaiela diote. Enpresa-antolatzaileei berehala ondamena datorkiekela.

Hauek honela, euskal herriko kirolen jarraipena lortu ahal balitz apusturik gabe, ikusgai soil, aldakuntza izugarri baten bidez lortuko litzake. Frontoietan, adibidez, pelotazale soilak aldikatu beharko lituzkete egungo zenbait eta zenbait ikusle apustulari amorratuak. Gaurkoz nere amets dana egingarri balitz, gaitzik ez baino on haundiak letozkigute noski, bai apustularien sakelarentzat, bai gure kirolen garbitasunarentzat eta bere maitaleentzat eta, nola ez, gizartearentzat.

Bereiztu ditzagun ikusleak: pelotarien hutsak txalotzen dituztenak, beren joko-interesen alderako alea dakarkiela-ta; edo diru-gutizi horrek berak eragin eta aurrean dadukaten lehia ederraren ikuspegiarekin goza beharrean, betazalak erretzeraiño gora eta behera ibili ohi dan pelota zulodunei eta hauen bidaltzaileei begiak erantsita denbora igarotzen dutenak; ala jokaldien edertasunak eta pelotarien antzeak laketgarri dituzten pelotazaleak. Beste barneko lasaitasun eta gozamenarekin jarraitzen diotela ikuskizunari azkenengo hauek, ene ustez. Baita kantxan jardun behar duten pelotariak ere, askatasun gehiagorekin lebiltzateke.

Era hontara pelotarien irabaziak gutxitzeko arriskuan lirakela? Inoiz etor zizaizkieten joko-diruen apurrei legokienez, bai noski. Hobe gainera, zeren zitekean hain garbiak ez izatea beti eskupeko hoiek eta. Ez nuke ordea beste hainbeste gertatzerik bere lansariarekin. Hontan arras bestaldera nago, alegia, bidezko eta beharrezko irabazia derizkiot kirolari edonorkek jaso lezaken saria. Edozertan bezin egiazkoak gaitezen alor hontan ere. Ez dut zintzoa arkitzen hain eztabaidatua dan sasi-amateurismo hori. Kirolariak bere eginkizun hortan, gainuntzeko kirolariak gainditzea du xedea. Hau honela, kirolariari onurakor zaio lehiaketan garaile ateratzearren saiatzea. Saiatze hortatik datorkioke irabazia eta bere irabazpide duela esan genezake. Zergatik bereiztu sail ezberdinetan (profesional eta amateur), denak helburu bera badute? Bereiztu ostera ahalmenari dagokion maila ezberdinetan eta ordaindu bezaiete denei saria, bakoitzari bere merezimentu eta ahalmenaren neurrian.

Ez dut inork esan beharrik idazki honek egungo egoera aldatzeko indarrik ez dezakela eduki. Baina arazo baten kezka azaltzea besterik ez bada ere, zer edo zer dateke. Eta hauxe nere helburu.

JOLUK

# Rezola Arratibel Joseba [G. B.]

*Joan dan Abenduaren 26'an, gabeko bederatzietan, Donibane Lohitzunen il zan ERREZOLA ARRATIren bizi ta maillak gure aipamen beBEL JOSEBA. Joan zaigun gizonarezia merezi du.*

*Euskalerriko gaztedia, alde askotatik bultzatua dabil gaurko egunean, eta ez biderik eroso ta egokienetara. Amaika ameslarik eta itzontzik, gure gazteari, bere indarra ta iraultza gogorra eskatzen dio, ondorenak ondo neurtzeke.*

*Ezker-eskuiñetatik datorkion dei liluragarri orren itxumenez, bidea galdu ez dezan, bere bizia pakezko iraultza bidez arkitu duten zenbait gizonen bizitza ausnarteza izan diteke erakusgarri.*

*—oOo—*

*ERREZOLA adiskidearen bizia, gaurko gaztearentzat eredurik bikañenetakoa izan da. Ez du arek aukeratu biderik gozoena, ez. Aren bizi-lerroa eramapenez eta egonarriz ta pakez egitekoa izan da. Gazte-gaztetatik bere iritziz zuzenbidea zegoen aldetik jo du, inoiz ere andik irten gabe.*

*1936'garren urteko gerratea sortu zanean, bide asko zituzten zetorren ondamendiari iges egiteko; baiña ala ere, urruti iges eginda emengo burrukaren ondorenak sufritu gabe gelditu bearrean, zuzenbidea zegoen aldetik jo zuten JOSEBA ta onen lagunak.*

*Etzan JOSEBA, zenbait mingain-luzeren iritzikoa. Gure Euskalerri txiki onek, bere bizia gal-zorian zuan orduan, erabaki bearra izan zuten. Gizonak, tederik onenez, utsegin dezake bere biziguneko zenbait pausotan. Baiña fede onez, eta biderik latzenetik jokatzen duan gizonak, guzion errespetoa merezi du.*

*Arrazkero etorri zitzaizkion gure adiskideari, k a r t z elak, eriotzako epaia, kartzelatik irtenda, berriro arrisku-bidean sartzea, Bidasoz aruntza iges egin bearra ta arrazkero gure Bayonako zarrak daramaten bizi neketsuan il arte irautea.*

*Orrela erori da eriotzaren azpian, bere joko garbia ta kemen aspergaitza guri bizi-eredutzat utzita.*

*—oOo—*

*Alde batetik eta bestetik, dei engañaagrriak izan zituzten gure gizonak. Aiek, okertu gabe iraun zuten, gizalegerik zuzenenean. ERREZOLA bezelako burrukalariak, guztiei egiaren eta zuzenbidearen erantzun pakezkoa eskeiñi zien azkeneraiño.*

*Eta erriaren erantzuna, ezin obea izan du gure JOSEBA adiskideak. Donibane Lohitzunen lenbizi ta Donostian gero; gure jendea eliza betean agertu da lagun maitearen illetetara.*

*—oOo—*

*Gure iritziak utsegin dezakete; baiña borondate onez eta pakezko bidez eramandako bizitzak, begiramenik merezi du guzion aurrean. Euskalerriaren Galbario-bidea, mingarria ta luzea da. Munduko pakeak, garesti jotzen die erri txikiei.*

*Batzuek, erotzat artuko zaituzte; beste batzuek burugabeko martiritzat. Guk, JOSEBA, zure bizi neketsu orren aurrean, txapela erantziko dizugu.*

*Jaunak beste munduan eskeiñiko dizu mundu ontako pakerik-ezaren ordaiñez, betiko zoriona.*

*Etxaniz'tar Nemesio*

# EUSKAL HERRIAREN UNEA EDO SERIOTASUNERAKO DEIA

Euskal Herriari begira jartzen naizen bakoitzean, axola handiko une batetan aurkitzen garela iruditzen zait; parada interesgarri batetan, alegia.

Gure Herrian, edozein sahietsetatik begiratzen zaiola, baliotasun bikainak ageri dira. Euskal Herriaren erraietan indar eta aberastasun ugariak nabari dira.

Gaur egungo tenoreari gagozkiola, ba dirudi halako udaberri giro bat somatzen dela gure Herriaren zenbait alorretan. Aipa ditzagun baten batzuk.

Gure literatura ta kulturagintzaren esnaberritze ta hezurmamitzea nahiko nabarmenak dira. Liburu apainak eta giartsuak ari zaizkigu argitaratzen aspaldion; gaurko jakintza ta gizarte giroan mamituriko liburuak. Unibersidadeko gazteria inoiz baino euskalzaletuago ta herriminago agertzen zaigu. Ikastolak ugaltzen ugaltzen doaz han-hemenka eta, etorkizunari begira, beroiek damaiguten arnasa berria bizigarri ta itxaropentsu da benetan.

Aberatsa ta emankorra benetan Euskal Herriaren kinka.

Ikuskizun honen aurrean, kezka larri bat sortzen zaigu, ixildu ezineko galdera bihurtzen zaigula gure barne-zokoan: zer eskatzen digu Esukal Herriaren mementoak?

Soila da erantzuna idazteko orduan: ERRESPONSABILIDADEA, Horra, Herriaren izenean, bortizki ta isituki eskatzen zaiguna. Herri baten nortasuna ta etorkizuna geure eskuetan daudelarik, seriotasuna ta erantzunkizuna eskatzen zaigu.

Ume kontuak alde batetara utzi eta gizonki jokatzen hasi beharrean gaude. Baina ez puntu batetan edo bestetan bakarrik, alor eta eremu guztietan baizik: lantegian, etxean, kalean, festetan, euskararen auzian, aldizkari ta agerkarietan; hots, herrigintzaren frente guztietan.

Zenbaitetan —zertarako ixildu?— izua ta bildurra ere sartzen zaizkit erraietara, gaurko Euskal Herriaren une aparta behar bezala ustiatzen asmatuko ez ote dugun pentsatuaz.

Izan ere —eta hau ere esan beharrekoa dela uste dut— kaxkarinkeri ta txepelkeria asko ikusten da oraindik baztarretan. Zabarkeria ta arduraeza franko nabaitzen da gure herrietan. Asko ta asko errazetik errazera dabiltz, konsumogizartearen sareetan biguinkiro kulunkatuaz eta beren buruak ezertan konprometitu gabe.

Bildur naiz askotan, gure inguruan zenbait jokabide ta portaera nolabaiteko ikusten dudanean. Bildur naiz eta ikara ere sartzen zait —heriolarria dateke—, esate baterako, Bizkaiako herri kaxkar anitzetan, baserriko neskatilak —eta mutikoak era bai— erderaz farra-farra txutxuputxuka ikusten ditudanean.

Nun da gure kontzientzia? Nun gure erresponsabilidadea? Nun gure gizontasuna ta herrizaletasuna? Ala eskutatik joan gara erabat?

Nire gaurko artikulu honek alertarako deia izan nahi luke, erresponsabilidaderako deiadar larria. Anai gisa, euskaldun guztiak barru-barruko esamina kolektibora gonbidatu nahi nituzke.

Zertan gabiltz? Herriaren alde ala Herriaren kontra? Nundik nora goaz? Zentzunez jokatzen dugu ala erosobidetik gabiltz?

Esnatu ta iratzarri, euskal jendea. Gaur ez dago lotan egoterik. Gure Herriaren nortasuna ta etorkizuna daude auzitan, eta ez dago mozolo antzera edota ontzarmario moduan ibiltzerik.

Begiak erne eta elkar harturik, jo dezagun sakonera, jo dezagun sakonetik herrigintzaren bidean. Euskal Herriaren uneaz jabetu gaitezen eta serioski jokatu dezagun.

Bukatzeko eta orain artekoak sorta batetara bilduaz, dei bizi bat euskaldun guztiei: ibil gaitezen beti euskaldungoaren faboretan, ez kaltetan.

*Joxe Lizarralde*

(«REDENCION»etik jasoa)

zeruko ARGIA

**Zuzenadaria:**

**MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**

| | |
|---|---|
| Barruan | 300 pezeta |
| Korreo batasunetako errietan | 350 pezeta |
| Atzerrietako beste errietan | 370 pezeta |
| Aidez | Aurrez gaidetu |
| Salmetan (ale bakoitza) | 7 pezeta |

# Munduan Zehar

## *Maltako arazoa*

*Ehun eta irurogeitamar urte bazeramazkiten Inglesek Maltako lurraldeetan. Orain aldegin beharrean arkitzen dira. Mintoff lehendakariak diru gehiago eskatu dio Bretaina Aundiko gobernuari eta honek berriz bere buruzagi den Heatheen bidez uko. Bretainako gudarosteak Malta utzi egin beharko.*

*Maltak estrategia maillan garrantzi aundia du. Baina Inglesen ustetan ez Mintof jaunak uste duen ainbatekoa ordea. Horregatik Mintoffen eskaerak gehiegkieria bat dela esanaz Inglesek alde egiten dute.*

*Zer egingo ote du orain Maltak? Badirudi Rusoak oso interesatuak daudela lurralde horretaz. Maltarekin komerzio maillan itun berezi bat orain dela gutxi egin du, ain zuzen.*

*Lehenik hortik asi da. Gerora politika maillara pasako da ohi duen bezala. Honek ez du esan nahi Rusiaren flota hor sartuko denik, besterik sartzen zailla izango dela baizik.*

*Azken aldi honetan Rusiaren indarra, Mediterraneo itsas aldean indartu da. Eta Maltkoa gertaera honek gehiago indartzen du berriro ere, Inglesen eta OTANen indarra ahulduta atera dalako, ain zuzen. Egia esan, Inglesek okasio hori nola galtzen utzi duten, arriturik nago.*

*FNLANDIAN AUTESKUNDEAK*

*Gure Inetan piska bat ahazturik edukitzen dugun Finlandiako estadu honetan auteskundeak izan dira. Berez ez zuten aurten izan behar. 1974 garren urten zuten bere garaia. Zer dalata orduan auteskundeak? Gobernua osatzen zuten partiduen artean konpondu eziña zegoelako, Finlandiako lehendakariak parlamentua desegin zuen eta auteskundetara jo zuen. Bere asmoa garbia zen: egoera baretu eta gobernu berria osatu.*

*Gauzak nola gertatu diran ikusi ondoren bere asmoak aurrera eramaterik izango ote duen, zalantzan jarri ditekeela uste dut. Izan ere, lehen bezala orain ere ez dago maioria dadukan partidu edo alderdi bat. Berriro ere partidu desberdinak osatutako gobernuarekin agindu beharko du. Partidu horietan ordea bada aintzindaritza izango duena, sozial demokrata partidua alegia. Partidu guzietan indartsuena hau da. Auteskunde hauetan bere indarra sendotuta atera da. Gobernuaren buru egingo duena ziurrenez partidu honen buruzagi izango da. Beste zein partidurekin gobernua osatuko duen jakitea da ordea prolema. Zentrista partiduak parte artuko du. Horretan zalantzarik ez da. Zein izango ote da irugarrengo partidua? Komunista alderdia izango al da? Horrela gertatuko balitz ez litzake lehengo aldiz izango. Lehen ere Komunista alderdiak gobernu bat edo bestetan parte artu izan ohi du. Orain ere berdin egingo al du? Ezetzean nago.*

*Bere barnean borroka gogorra baitago. Estalinista eta liberal joeren artean ikaragarrizko borroka dago izan ere bere barnean. Rusiaren laguntza, estalinistek dutela esan beharrik ez dago. Baina auteskunde hauetan liberal joera aurrera atera da. Behar ainbat ez ordea nere iritziz. Liberal joerak irabaziko balu gobernuan parte artuko lukeen zalantzarik ez legoke. Baina hori gerta bitartean urte batzuk igaroko dira.*

*Binbitartean sozial demokratek beste eskubiko erakunde polikoren batekin osatuko dute gobernua. Eta honela gauzak, gutxi gora behera, lehenean gelditzen dira.*

*Alaz ere ezker joko batetarako, partidu komunistaren jokoa ikusteko Finlandiaren ezperientzia oso interesgarria da. Arreta aundiagoz aztertu behar genituzke, Finlandiako gertaerak.*

*BELGIKA*

*Estadu honek ere bi illabete oso daramazki gobernua osatu ezinik. Azkeneko iru urte hauetan lehendakari izan dan Eyskens janaren sozial-kristau izenako partiduan datza arazearen kakoa. Partidu honek bere eskarrk gogortu egin ditu. Gogorketa honek bestalde partiduan bertan erepuskaketa gisako zerbait sortu du. Orain arte Flamendarrak eta Waloniarrak partidu honetan elkarrekin egin dute lan. Waloniarrak ez datoz bat partiduaren jokoarekin. Flamendarren alde gehiegi egiten omen du partiduak. Ez dakit puskaketa osorik sortuko den baino partidua kinka larri batetan dagoela zalantzarik ez dako. Begika osoa dago ain zuzen kinka larrian.*

*Waloniar eta Flamendar artean borroka gogortzen ari da. Azken urte hautan flamendar zapalduek aurrera egin zutela zirudien. Azken aldi honetan berriz Waloniarrak ez dira lo egon. Ber riro ere indartsu azaldu dira. Nork irabaziko ote du? Dena dela borroka gogorra izango da. Erne ibilli beharko dugu, guretzat oso erakutsi ederrak izango baidira. Izango dugu, bai, nun ikasi.*

*JUAN ELUSTONDO*

# Quebec - eko berria

# ABERTZALEEN ARTEKO EZTABAIDA

**Lehengo batean eman zen beri batean, kebektarrak lo harturik ez zeudela ikusten zen. Inperialismo errealitatearen aurkako borroka zailean gogor aztertzen ari ziren zenbait arazo. Hauen artean, abertzale borrokan abiatutakoen arteko zenbait antagonismoak nola zuzenduko ziren jakitea, ez zen txikienetakoa. Quebec askatu bat, kebektarraren askatasun osorako beharrezko elburu bat bezala ikusten dutenen artean, ideoloji ta estrateji arazoak indar hartzen dohazte.**

**Joan den urteko abenduaren erdialdean beste arazo bat sortu zaie itxas bestaldeko adiskideei. "Le Devoir"-en agertutako idazlan batean, "Negres Blancs d'Amerique"-en egileak F.L.Q. ta gerra armatuaren aurka altxatu da.**

**Izan ere, Quebec askatu baten alde borrokan ari diren ib erakunde nagusiak, P.Q. (sozial demokrata) ta F.L.Q. (borroka armatuaren zalea) bi estsateji antagonikoak daramazkite, Lehenengoak, auteskundearen bidea aukeratu du ta bigarrenak gerra armatuaren bidea.**

**Aipatutako pentsalaria bigarren talde honetatik irten egin da ta berak egin duena egiteko eskatu die bere kideei. Pentsalari honen jokabidea bi taldeen estrateji antagonikoan oinarritzen da. Berak dionez, auteskundeen bidea hartu omen du Herriak ta ezin omen da F.L.Q. eraman nahi duenarekin ezkondu. Honen jokabidea 1963 urtetik gaurrarteraino alferrik erabili omen da ta ta herria armen bidez Ottawaren aurka altxaeraztea ezina omen da.**

**Pentsalari berak dionez, denok iogoratzen dugun 1970 rteko larrialdi haretan, Kanadako gobernua zalantzan jarri zuen indarra ez omen zen izan F.L.Q.ren ekintza. Gobernaren bildur hura P.Q., langile sindikato ta herritarren batzordeen elkar hartze harengaiti sortu omen zen. Bestetik, Gobernuak ondo ezagutzen omen zuen F.L.Q.ren benetako indarra.**

**Beste erakunde hoien ekintza bateratutik soilki sortuko omen da inperialismoari erasotuko dion benetako indarra. Egoerak hori eskatzen badu, ez doha oker pentsalari hori. Hala ere, auteskundeen bide soilak nekez eraman izan oi du halako elburu radikalera. Jokabide politiko hori mementoan oso garrantzitsua gerta badaiteke ere, ekintza pratikoetan batasuna lortuaz, kebektarrek asko radikalizatu beharko dute.**

—oOo—

**Aurrerago jarraituaz, pentsalari berak hau dio: F.L.Q. eta P.Q.ren artean beste aukerarik ez dago. Beraz langile alderdi batentzako tokirik ez dago. Pentsalariak dionez, horrelako alderdi batek kebektarren zatiketa baizik ez luke ekarriko.**

**Baina gai honetan, pentsalariaren kide izandako baten hitza gogor entzun da ta hura saldu egin dela aitortu du.**

**Izan ere, haren kide honek langileria P.Q.ren eskuetan jartzeko asmorik ez du. Estratejia ta ideolojia ez omen daude nahasturik ta langileriaren politizatze ta eratzea ez omen da dira burges txikien eskuetan nehoiz jarriko.**

**Langileria Amerika ta Kanadako inperialismoa baztertzeko, honen azpian jasaiten ari diren guziekin elkartzeko prest badago ere, ez omen dago bere askatasuna ta autonomia galtzeko prest .**

**Honek dionez, erakunde guziak elkartzeko lain izango den Elkargo Demokratikoa sortu omen daiteke, baina alderdi baten monopolio potikopean herriaren herriaren indar bizi guziak ezartzea ez omen dago langileriaren buruan sartzerik.**

**Dena dela, Vellieres pentsalariak, P.Q.ren eskuetan erori arren, garrantzi haundiko eztabaida sortu du Quebecko askatasunaren aldeko mugimenduaren barnean.**

**D. IZA**


MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIAK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46 GAZTEIZ (Vitoria)



TXIMIST - INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Lantegi ta landolak:
Jolastokieta (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Eulejio Serdan, 18. Urrut. 220535-36
VITORIA

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkiñak: 421369 - 427726
Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián

Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

FAGOR

Ereria epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko du berela

# LANGILERIAREN LITERATURAZ

Euskal literaturaren berbizkundean kultura eta abangoardia sortzea izan ziren lehenengo kezkak, uste dudanez. Ta oraindik ere hoetxek dirudite interes nagusi. Baina poesia, teatro, nobela, albistaritza, saiaera eta testetara zabaldu ondoren, kantua eta bertsolaritza ere indarberriturik, egunotan euskal literatura proletario bati buruz ere geroz eta kezka gehiago ari da sortzen. Ezin esan halako asko dagoenik. Eta tradizioa falta denean beti bezala, zail samar dirudi problema hontan argirik egiteak.

Literatur teorietan hasi gabe, Alemaniari begirazko informetxo batekin konformatuko naiz ni hemen. Teorizatzen, nik uste, zenbait dato pilatu eta gero bakarrik has gintezke.

Langile mugimenduak tradizio aberatsa bait du Alemanian, orain bezala erdi lotan dagoenean ere (nahiz-eta bolara hontan lan-uzte galantak gertatu) fenomeno txit interesgarriak sortzen dira beti gizateria hontan. Engelsen eta Leninen eritzian behintzat, ezagupide teoriako problema bihurrietan inoiz egindako azterketarik sakonenak burutu zituen noizpait hemen langile soil batek: Dietzgenek. Hori bai, lanak uzten zizkion bere biziko ordu librerik gehienak problema horixe estudiatzen erre zituen Dietzgenek, ta bere enpeinua beste eskolarik ez zuen langile hauxe da, Kant edo beste ororen aurretik, Leninek arazo filosofiko guztiz zailotan onartzen duen Autoridaderik haundiena.

Horren merezimendua konprenitzeko batez ere gogoan eduki behar, espontaneismoak inon batere ez balio izatekotan filosofian ez duela balio. Filosofia egitea teknika oso zaila biturturik dago. Hortantxe eskolatuen, ia profesionalen eskuetan bakarrik utzita hala beharrik. Baina hau kultura osoarekin pasatzen da honez gero: kulturazko obra seriorik egin ahal izateko kulturaren (jadanik egonaren) ezagupen haundia behar da, eta ezagupen hori gutxitan bete lezake senak edo etorriak. Eskolak ere ez askotan. Langile, artista, filosofo, politiko eta edozer gauza, denak batera, izan omen zitezkean denborak, inoiz egon badira behintzat, aspaldi joan ziren (Errenazimenduan halaxe omen bait zen, Engelsen ustez). Ezer balio duen literaturarik egin nahi duen langileari izugarrizko problemak sortzen zaizkio: hau ere, filosofia filosofoena bezalaxe, "literatoen" monopolio bihurtu antzean agiri bait da.

Eginez eta ahaleginez bere burua eskolatu, jakituriaz hornitu eta literatur arloetan goenetako mailetara igo zaigunik badago euskeraz ere: San Martin, adibidez, berak Escritores Euskéricos katalogoan jakinarazten digunez "de formación autodidacta". Halako bidean langileak dituen oztopoak adierazteko bera eta bera bezalakoak genituzke egokienak. Guztiz jakingarriak lirake, ezpairik gabe, irakurleentzat halako biografiak. Halare, eta euskal literaturan profesionalismorik ia batere ez egon arren, ez dirudi gure idazle langileak besterik gabe "langile idazletzat" har ditezkeanik, sortu diren problemek zentzurik izatekotan.

Alegia, jeneralean langileek egindakoari ohi deritza langileriaren literatura. Hau da, herri askotan behintzat, egunkonzeptu hau ulertzeko modurik jeneralena. Konzeptu preliterario bat litzake hontara "langileriaren literaturaren" burutapena. Euskal idazlerik gehienak edo denak ditugu langile eta (edo) langileen ume, baina beren obra langileriaren literatura bezala juzkatzeko ez dirudi aski, nonbait, idazlearen kondizio horrek. "Ez da idazlea epaitu behar, idaztia baizik", finkatzen zigun Patri Urkizuk. Idazleari ez baino obrari begira ulertzen da langileriaren literatura konzeptua. Modu hau beharbada egokiago da bestea baino, berez, eta konzeptuaren jatorriaren aldetik ere beronexek dirudi jatorrizkoa: Alemanian XIX mende hasieratarako gutxienez badadukagu, ta Frantzian oraindik lehenagokoa dela uste dut. Ulerkera honen korapiloak ez dira txikiak, halare.

Beren buruak langileriaren literato aitortzen zituztenak legitimazioa egitekoan, beti kausitu dira metafora ta irudi asko erabili eta —franko bitxia horixe— beren "langiletasuna" ta "iraultzagiletasuna" etengabe hotsegin beharrean, ez esibizionismo nabarmen piska bat gabe. Eta gehiegi konbentzitu gabe ere bai gehienetan. Maiakowskik berak ere "poeta obreroa" poeman, halako omen direnen legitimazio klasikoa utzi digunean, beharbada poetak langileak baino errazago konbentzituko dituen hitzak idatzi ditu (eta zer esanik ez, agian Maiakowskirentzat berarentzat oso-osorik balio lezakeanak ez duela besterik gabe edozein "langileriaren idazlerentzat" balio):

"Guretzat, beharbada,  
lana da gure eginkizunik  
[maiteena.  
Ni ere lantegi bat naiz,  
eta tximinirik ez badut,  
beharbada,  
okerrago da, zailago ta mintsuago  
[niretzat.  
Ba dakit,  
esaldi hutsa ez da gustatzen.  
Aritzak botatzea zerbait egitea  
[da.  
Ta gu, ez ote gera apika  
[zizelkari?  
Arraintza  
oso gauza errespetagarri da zinez.  
Ateratzen dute sarea,  
ta sarean legatzak.  
Baina errespetagarriago poetaren  
[lana:  
guk gizaseme biziak harapatzen  
[dituguˌ  
ez arrainak.  
Astuna da labearen aurrean  
lan ta lan egitea,  
ta astunago  
burdin goria ingudean gozatzea.  
Baina nork sala gintezke  
alfertzat?  
Guk arimak lantzen ditugu  
bertsoaren daratuluarekin", e.a.

"Langileriaren literatura" zer den argitzekoan autoreari ez baino obrari begiratzen diotenak obraren gaiari dagozkio beti. (Zaila bait litzake langileriaren forma literario espezifikoren batez mintzatzea). Halare, zenbait obra langileriaren literatura bezala epaitu izan denean, gai bezala langilea edo lan mundua erabiltzeagatik ez baina ideologiaren bategatik zen gehienetan. Ta behin hontaraz gero lur oro irristagarria dugu hau, oin literarioz ibiltzeko. Langileriari buruz suhar ta espantu ideoolgiko haunditan aritzeko intelektual askoren afizioa ez da gaurkoa. Ta gaur hori maiz Marxen izenaz egin nahi izaten bada ere, Marxek berak ederki egiten zuen halakoen bizkarretik farre. Zeren-eta, harek dionez, poetak, poeta denak omen bait dira "plus ou moins, onenak berak ere, des courtisanes", ahoxuri ta losintxari alegia. Poeta iraultza eta langileria zaleok, Marxen ustez, "filisteo" ta "zakur" hutsak dira, harropuzkeria ta banitatez beteak, langileriaren kontura negozio ederra egiten duten oportunistak.

Alemanian batez ere lehen Mundu Gerraren ondoren hasi ziren langileak beren literatura egiten, literatur sobietarrak supiztuta seguraski. Ezaguna da Idazle Proletarioen Elkargo sobietarra. Ez da orain Elkargo hura juzkatzeko unea: Maiakowskik tiro batekin bere bizitzari azkena eman aurreko gutunean "en serio, no hay nada que hacer" hitzekin ebazten zuen. Eta Elkargo hura ere itsuen eta oportunisten habia bihurtuta egoteak amorratzen zuen. Baina Sobiet Batasunaren aldean frutu eskasa emango zuen Aemaniako literatura proletarioak.

"Langileriaren" literatura guztia ideologiaz hanpatua zegoen, hitz haundiz eta deklamazio patetikoz. Putza. Borondate ona ez bait da sekula literatura egiteko aski izan. Ez eta ideologiaren batetatik harrapatutako hitz borobil galantak ere nork bere ideien txikitasuna ezkutatzeko: rekurso bat bakarreko kantari klasikoa kukua da, ta ezaguni, besteren habia bilatzen du arraultzak egiteko. Hauxe da euskal literatura proletariorik sortzekoan denok lehen-lehenik kontuan eduki beharretakoa: jakin dezagun kukuak kuku direla ezagutzen.

Pentsarazi egiten bait du, gerra arteko kuku ideologizatu "gorri" haietako gehienak Alemanian, gehien berotzen zuen eguzkia faxismoa agertu orduko, faxista egin zirela jakiteak. Beste batean jarraituko dut 2gn. Mundu Gerra osteko literatura proletarioaz.

Jose Azurmendi

# Esaera Zaharrak

Izotz aundiez lur-gure. *(AN. Eraso) Izotz aundiaek lurra arrotu ta giro onean uzten dutela.*

Iruñan zer berri?, *galdetu emen zuan Karlos V-garrenak.*

Iruñan gari asko.

Gari asko, gari asko! baño baterez neretako! *(AN. Ultzama).*

*Iltzen denari ez baño, jaiotzen denari egin bear zaio nigerra. (AN. Baztán).*

¿Animen etsaiak? *Iru dira, Jaune: (Goizuetar batek).*

Izotzaan gañeko egoa berria,

Larra bi puntetan lotua,

Ta illargitegiko putzua *(AN. Ezkurra).*

Il aiz? Erraxena egin den. *(Getaria).*

Haur ori negarrez ari da, zazpi zakur aundi ondotik ba-litu bazala. *(Lapurdi).*

Illargia ez dago labe gañian *(G.) Orexa) Urdururi dago, asarre dago, ta kontu! bezala.*

Itsu-matsu: denak alatsu *(AN. Ultzama).*

Intxaurrentzat arririk ezta beñere falta. *(AN Intza) Mutiko Intxaur-zaleaz esana.*

Izain ona duk ori! *(AN. uitzi) Beti diru-eske dabillenaz esana.*

Izpi oneko umea aiz i. *(G. Goierria).*

Ixiilik, guziak dakitela egiten du. *(Andoain) Ixilka dabil; ta guiek dakie.*

Ire aurre azi ezak, egungo aragiz, atzoko ogiz eta joan da urteko anoaz. *(AN. Luzaid).*

Izen utsak eztu gizona egiten. *(G. Andoain).*

Iltzen denean olloa. *(=Araitz) Il-ta ondorean alper-negarrak, egin zezaketena ez egiñez.*

Izpidean zaude; iñork eztitu entzun nai baiño. *(AN=Albiasu) arrazore daukazu, bezal.*

Ilbeltza txuri: ez ardi ta ez axuri. *(AN. Lizarraga) Ilbetz guzia elurretan...*

Ikusten eztuan begiak negarrik ez. *(G. Berastegi).*

Idiak min eta gurdiak negar *(AN. G.) Itzegin lezakena ixil; eta obenduna espaz.*

Itzak merke ta poltxan diru gutxi. *(G=Astigarraga).*

Ire etxeko andriak emango? Idiak jango. *(G. Astigarraga).*

Ik, besterengatik, zapata pare gutxi urratu duk *(G. Astigarraga).*

Jaungoikoak Adur-oneko egin zaitzala; *(G. Adoain) Paketsu, zoriotsu egin.*

Jo ta salto, ezta negu; jo ta malo, ori da negua! *(AN. Araiz).*

Jangoikoaren izenean ematen dana, atetik atera ta leiotik sartzen da *(G.).*

Jaungoikoak ematen du otzik oña manta. *(G. Zumaya).*

Jesukristoak gorrik ikusi zitula, nik bai ikusi dittuela. *(AN. Larraun).*

Jetxi zanak, alkia galdu zun. *(G. Ikaztegieta).*

Jo ta kia egin du. *(G. Gaintza) Auts biurtzerako jo du, bezala.*

Jo ta ke, asi da. *(Larraun) Ikasten, laneaneta... su ta gar asten danaz.*

Jo ta su! Su ta gar! *(G. Ikaztegieta) Lanari ekiñaizteko esanak.*

Jo, ta uts. *(G. Ikaztegieta) Oker jo duduaneko.*

Jo ta zerraldo. *(G. Ikaztegieta) Gaitzak edo norbaitek jo, ta bereala ankaz gora.*

Jaungoikoak egin zun Martin, bere prakakin. *(G. Arrasate).*

Jo ta ke asten da: baño gero abotz-galda. *(AN Larraun) Alako gogoz asi-ta gero savio.*

Jendea aixei ematen zaio; jendea axetu eginda. *(AN. Larraun).*

Joala jo, joala dantza, jo ta dantza. *(AN. Ultzama).*

Jaiean jai: asten ala nai. *(Leitza) Alperrari esaten zaiona.*

Juantzar batendako, Maritzar bat ezta sekulan faltako. *(Aezkoa).*

Jostaketa luzeak, azkenean negarra. *(AN. Lekunberri); ta Aranon:*

Jakin naiak, konta naia berekin. *(Arano).*

Ja, ja, jai; astiak balira jai! *(AN. Arano).*

Joakina motza, biar izotza, etzi elurre, banun bildurre *(AN. Albiasu). Aurtxo nasiari, zerbait asten duanian, aittak edo amak esaten diotena.*

Jaungoikoari esku, ta Ama-birjiñari anka:

Or joan da minki-manka. *(AN. Beramendi) Ala-ola bizi, ta ala-ola il danaz esana.*

K'izkiaz asten diran Esaera Zarrak.

Kandelera otz: negue da motz:

Kandelera bero; negue da gero. *(AN. Luzaide).*

Kristoonak artuko ttuk. *(AN. Lizarraga) Gaiztakerian dabillenari esana.*

INTZAR DAMASO AN.

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
HERNANI, 4 — DONOSTIA

ECHABE
ETXABE'REN
Mueble - Etxea
Fuero'en Enparantza
Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 24
ZARAUTZ

aristegui hermanos
ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.
ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 18 - URRUT. 411438
DONOSTIA


BAR ETA JATETXEA
Antonio
Norberaren aukeran jana.—Txuleta erreak, ezin obeak
Avda. Gral. Mola — Urrutizkiña: 64 16 31
ONDARRABIA — (Gipuzkoa)

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, 75 urte betetzean, orain arte bezela, gure Probintziaren alde lan egiten jarraituko duala adierazten die Gipuzkoar guztiei.

# LIBURUAK

## PASTOR IZUELA BERTSOLARIA

*AUSPOA saillak bere bidean darama, bertsolari zaar eta berrien zerrenda. Oraingo au 106 garren zenbakiz joa dator eta PASTOR IZUELA bertsolariaren bertsoz ornitua dago.*

*Pastor onen bizitza, gure zaar askoren antzekoa, 1780 garrenean jaio eta 1837 garrenean il. Bertsoak bertso, neri bertsoak baiño geiago ikutzen didate bizi apal oien bideko zertzeladak. Aiako Altzolan, Izuelako baserrian jaio eta mendi mutur aietan bizi eta il. Aien irterak gutxi eta inguruko errietara, azokaren batera-edo... Alako gizonak aitzen ari zaizkigu.*

*Gure egunotan, batetik besterako bideak ugaldu eta egokitu egin dira. Leengo gurdibide eta bidetxiurrak, zabaldu eta beribillentzako moldatu dizkigute auzorik bazterrenetakoak ere. Orregatik, orain ezta jendea ain sartua bizitzen mendi-mortuetan. Izenez, Agustin Arruti genduan, baiña askorentzat bere jaiotetxeak eman zion Izuela izena izango zan ezagunagoa.*

*Liburu ontan bertan, EZKIOKO ITXUA ETA SEGURAKO ITXUA ere beren bertsoen aitamenez ekartzen ditu Aita Zabalak. Erri-erriko gizonak, Alegiñak egin ditu jesulagun saiatu onek, Ezkioko Itxuaren izen-deiturak eta jaioteguna eta eriotza-egunna jakin nairik, baiña dana alferrik. Gizon apal auen bizia, beren etxeko orma zaarretan eta bide latzetan izkutatua gelditu da. Jakin duana bakarrik, mutilzarra izan ote-zan.*




*Segurako Itxua izenez, JOAKIN LUZURIAGA ORIA zan. Jaio ere, 1824 garren urteko Ilbeltzaren 15-ean egin zan. Artean euskaldunak ez zuten gerrateetara joan bearrik, baiña gure gizon au ez zan etxe-zuloan egotekoa, nunbait eta Cubara joan zan soldadu. An, bala batek begi biak galdu zizkion eta kito aren soldaduska.*

*Ez zan gozoa izan soldadu itsuaren etxeratzea. Berak dionez:*

*ba-zetorren negarra*
*ugari begira...*

*Ta aurreratxoago:*

*askok artutzen zuten*
*nigaz errukia,*
*gero jaso ninduten*
*miserikordira.*

*Itxutu arren, arkitu zuan andregaia, eta arekin ezkondu ere, bost seme-alabari sortzea emanik. Iru urte osatu gabe il zitzaien alaba bat, eta andik laster ama ere il zan. Mixeri gorrian bizi izanak, beartsuen elizkizuna egin zioten. Eta or gelditu dira Aita Zabalak tajuz artutako bertsoak, gerokoen ezagubiderako.*

## ZEPAI BERTSOLARIA

*Auxe il-berri degun bertsolari jatorra. Idiazabalgo bere ardangelan, ikusi genduan azkenego eta onen bertsokako jarduna oso ezaguna gertatzen da gure gizaldikuontzako. AKILINO IZAGIRRE AMENABAR beronen izen deiturak. 1906 garrenean jaioa eta 1971 garren ontan illa. Ogei eta bost urtetarako ezaguna zas bertsolari bezela. Errenteriako Zabaleta bertsolariak, onela aipatzen zigun orduan Zepairen gaitasuna:*

*Etorri bikaiñeko*
*bertsolai zuzena,*
*zeñek berdinduko du*
*zure almazena?*
*Arrituta utzi zuen*
*ango jende dena,*
*oraingo gaztietan,*
*zu zaude onena.*

*Gerora, noiz-nai azaldu izan zan bertsolari-guduetan. Ala 1935 ta 1936 garreneko leiaketan, bietan irugarren gelditzen zala. Arrezkero, alde guzietan ezaguna egin zan gure ZEPAI jatorra.*

*Aren bertso ta ateraldiak or gelditu dira erriaren gogoan. Azkenengo bere bi saioak, Donostiako Loiola-auzoan egin bide zituan. Aren omena urrengorako utzia zutela, uste gabean eriotzak aurrea artu zigun eta omen ori ilda gero egin bear izan zitzaion.*

*Aita Zabalak bere 107 garren liburua bete du bertsolari yayo onen bizi-xeetasun eta bertsoez. Beste liburu ederra bertso-zale dan gure erriak jaso eta kanta dezan.*




*AUSPOA sailla geroko urtetan, maitearen-maitez gordea izango da euskal-sukaldeetan.*

*Etxaniz'tar Nemesio*

ERLOJU TA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Vergara, 11-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

# ZINEA DELA-TA

**Zineari; gure hizkuntzak oso gutxi landua duen sail honi eltzera noa.**

**Zineari ere euskal argia isuri genezaiokeela-ta, euskaraz iritzi batzuk emanaz, dakidan eta aal dudan neurrian ate bat irekitzea da nere elburua.**

**Orain arte eta oker ez banago, Zeruko Argian zine gaia, bi aldiz jaialdieri buruz, eta Xabierrek berak "Ivan el Grande" pelikulaz bestea. Nere zorionik beroenak egileari.**

**Baina orrekin bakarrik gelditzea motz litzakeala ikusirik, jarrai dezaiogun ariari.**

**Ez nuke zine arazoa, politika, Erri eta langile arazoekin alderatu nai, baina kulturaren zati eta arte bezala duen garrantzia ez dago ukatzerik. Bestetik, gizartearen jokabideak moldatzen eta aldatzen, badu zer esana.**

**Zineak kondairan zear gizonengan izan duen eragina aztertzeko, erdal lanetaz baliatu bearrean gara. Erdal aldizkari berezietatik atera bearko ditugu zenbait iritzi eta gertakizunen mamia. Euskaraz ez bait dugu oraindik arlo au goldatu. Zoritxarrez bear bada, baina arazoa or dugu eta aurre eman dezaiogun. Lan andia eta gaitza izango da zalantzarik gabe. Alaz ere, uretan sartu gabe ez dagoela igeritan jakiterik eta... busti gaitezen leenbaileen.**

**—oOo—**

**Zineari loturik dagoen zenbait gauza gertatzen da gure Euskal Errian, eta orietakoak dira:**

**a) Donostian urtero egiten den nazioarteko zine jaialdia.**

**b) Irunen naiz Errenderian izan oi diren sariketak (Premios de cine aficionado).**

**d) Arte eta saiaerako aretoetan ikusten ditugun peikulak.**

**e) Erri askotan egiten diren "zine forum" saioak.**

**Baina bat batean, galdera batzuk datozkit burura:**

**a) Arte eta saiaera, zine jaialdi, eta forum auek ba aal dute euskal kutsurik?**

**b) Euskal kultura baten barruan ba ote dago zazpigarren arte onentzako lekurik?**

**d) Amets utsa ote da galdera auek egitea?**

**—oOo—**

**Barkatu Nestor Bazterretxea eta Fernando Larruquert-en "Ama lur"-ez aaztua banengoen.**

**Pelikula au, gure erri, musika, gizon, lur, dantza, kirol eta abarren agerpen bat da. Euskara ere, egiten da zinta onetan, eta argazki zoragarri batzuk bide direla, geure Herriaren polita, abestien ederra, dantzen ikusgarria eta oituren berezitasuna dastatu aal izan genduen.**

**Ez dut pelikula au jorratzeko asmorik, baina beste galdera batzuk egiteko bai.**

**—1968, urtean, Donostiako zine jaialdietan agertu ziguten "Ama lur" ura ote zen Bazterretxea eta Larruquert jaunek, gure Erria zer nolakoa den adierazteko nai zutena?**

**—Gure Erriak, beste guztiak bezalaxe, bere arazoak badituela erakustea ez ote zuten nai?**

**—Gure Erria oso polita dela agertzea bakarrik, ez ote zieten utzi?**

**Zine zale bezala, eta beste era bateko "Ama lur"-en zai gaudela, jo dezagun aurrera.**

**—oOo—**

**Zine gaia ezaguna da gure errietan, baina erdal kulturaren zati bezala beti. Eta horixe da guk nai ez duguna; euskal kulturaren barruan artzea baizik.**

**Asiera guztietan bezala, eragozpen eta zailtasunez jositako bideak urratu bearko ditugu. Orregatixe aal dugun neurrian, guztiok erantzun bear genuke ondoren onuragarrien itxaropenak bultzata.**

**Leen esan bezala, ate bat irekitzeko asmotan, naiz eta geiagok ere, sail ontan lan egingo dutela pentsatzen dudan.**

**XABIER**

# GASTEIZTIK

### BIGARREN EUSKAL LIBURU ETA DISKOEN LEHIAKETA

Abenduaren 24 25 eta 26an, Euskal liburu eta diskoen lehiaketa Gasteizen. Lehiaketa hau interesgarria zen, batikpat Araban zelako eta Araban egin den aurrerapena neurtzeko abadune zelako. Hantxe egon ginen ba, gero aldizkari honetan Azokaren gorabeherak aipatzeko asmotan.

### AZOKAREN IDEKITZE

Azoka ireki-eta, Gasteizko Hiri-etxe eta Diputazioko buruzagiak datozkigu. Alkatearen ondoan don Joxe Migel Barandiaran, alkateari adierazpenak ematen. Egon gara mementotto bat don Joxe Migelekin; beti gazteen artean, berak, larogei urte baino gehiago dituelarik, bihotza gazte-gazte baitauka.

### ZORROZKERIA

Apaiz bat azokara etorri eta berehalaxe alde, hormetan isegita dauden txarteletan zenbait "H" ikusi eta gero.

### EUSKERA, GORA

Euskeraz asko egiten da. Ezagutzen ditudan gasteiztarrak, ikasten ari diranak eta euskalberriak (hauek ere, danok bezala, ikasten jarraitu behar dute), euskeraz egiten dizkidate galderak, ahal duten neurrian. Gasteiztik kanpo ikasten ari direnak ere gogotik dabilzkigu euskeraz ikasten. Hola esan didate Bilbon eta Iruinean ikasten ari diren batzuek.

### HAU GAZTERIA!

Lehen eguneko arratsaldean, jendea erruz. Gehien bat, gazte. Niregana datorkidan euskaldun zahar batek, esaera bat baino ez dauka ahoan: hau pozkarria! Hau gazteria! Hau etorkizuna!

### ERRESAKA

Eguberri eguneko goizean, berriz azoka ireki. Jendearen aurpegian atzo gauean edandako txanpan botilak nabaritzen ditut.

### OHAR-IKASPEN ON BAT

Eta honela bat bi, hiru egunez egon gara. Liburu eta diskoak saltzen edo saltzen saiatuz behintzat. Garrantzi haundiko gauzak nabaritu ditut. Esate baterako jende asko (euskaldun eta beste) ezagutu dut. Bestalde, euskeraz asko egin dudala, batikpat, eta hori nere aburuz inportanteena da, bertako jendearekin. Zetorkidan jende guztiari, lehenik "Euskeraz ba ahal dakizu"? Eta euskeraz ez zekitenei, "ba ez dago debekatuta ikastea, oraindik behintzat"

### HUTSUNEAK

Topatu nintzan Economicas deritzan karrera bukatu duen batekin, orain Valenciako Unibersidadean irakasle, euskal ekonomiaz liburu baten bila. Arlo honetan, hainbestetan bezala, hutsune haundi bat nabaritzen da. Eta gainera, Gurutz Ansolak prestatua, sekuestratua... Eta hori, deskapitalizatzeaz minzatzea erreakzionario omen dela eskerrak... Baina hasi gara geure buruari galdtzen zergatik ez diren sekuestratuak izan ezkertiar liburu guztiak..., edo batzuk gutienez... Gauzak honela, pentsa dezakegu gaurregunean Marxen eta sozialista ortodoxo guzien liburuak ez direla Ansolarena bezin arriskuzkoak.

### "GAUCHISTES" DIRELAKOAK IKUSLIAR

"Gauchistes" direlakoak agertu zitzazkigun. Eta ezin falta zitekeena: hauen jorraldi traketsak. Azokan bertan, jendeari inkesta bat betetzeko ematen zitzaion. Esan behar dugu inkesta horri ehundik larogei eta hamarrek edo harrapostu ziotela. Ba inkesta horretan jendeari nola jakin zuen azokaren berri, euskalduna zen ala ez, zer hutsune arkitzen zuen, liburuetan normalki zenbat gastatzen zuen, nongoa zen eta abar galdetzen zitzaion. Baina buru-azkarrak etorri zitzazkigun inkesta hura erreakzionario xamar zela eta horrelako zenbait uskeririk esanez. Eta ez hori bakarrik, baizik eta zegoen giro hura aprobetxatu beharko genduela, hitzaldiren bat edo emanez. Hitzaldi progresista bat, noski. Eta azoka erauzteko haina progresista bada, hobe. Badirudi buruan zerrautsik baino ez daukaten sarberrien maixu hauek gauza horiek zerutik erortzen direla uste dutela. Besteen lana kritikatzea errezena da. Bere gustoko euskal liburu eta diskoen lehiaketa nahi baldin badute, egin bezate! Ea zer lehiaketa eskeiniko liguketen!

Edo behar bada, itxoin behar da. Behar bada holako gauzak herriaren konzientziatik etorri behar zazkigu. Badakusagu zer oinarri daukan herriari eman zaion konzientziak, hemen gauza hauetaz mintzatzen ari garen bitartean, Tolosako papelerak kanpora. Ederki, jaunak!

### AZOKAREN ZUZENDARIAREKIN

Bukatzeko, Manuel Iradier (azoka honen antolatzaile) taldeko zuzendari den Gerardo Lopez de Guereñu jaunarengana joan naiz.

—Zer moduz, asko saldu ahal da?

Ba saldu da, saldu da. Gero esanen dizut zer liburu rik saldu den. Kontuan eduki behar dugu igaz baino editorial gehiago etorri zaikula, hots, liburu gehiago.

—Diskoetako standean zer saldu da?

Esan behar dizut liburuak baino diskoak saldu direla gehiago. Saldu diren gehienak, Benito Lertxundi, Herrikoi Musika Sorta, Baztango Dantzak eta Arabako Abesbatzarenak. Oraintxe esan didate agortu diren diskoak: Benito Lertxundiren L.P., Herrikoi Musika Sorta II, Urretxindorrak (dena), Euskal Meza, Luis Mariano euskeraz, Coros Vascos Coro Easo eta Jesus Loroño.

—Lehen esan duzu igaz baino editorial gehiago etorri zaikula. Zeintzuk dira?

Diario de Navarra, Editorial Gomez eta Diputazioko editoriala. Honez gero, igaz etorri zitzazkigun editorialek liburu gehiago ekarri dute. Esate baterako, Etor.

—Zerbait interesgarri nabaritu ahal duzu editorialen artean?

Bai. Bi gauza. Alde batetik, euskeraz idatzitako liburu gehiago ikus ahal izan dut. Esan behar dizut ere euskeraz idatzitako liburuen saketak gora jo duela. Bestalde, Distribuidora San Miguel delakoa, agortutzat konsideratzen ziren liburuak ari da banatzen. Honi interesgarri deritzagu.

—Orain esanen ahal didazu zer liburuak saldu dituen editorial bakoitzak?

Bai. La Gran Enciclopedia Vasca delakoak Cocina Vasca, Vida y obra de Iparragirre eta Amaia, Auñamendi editorialak, Historia del Pueblo Vasco (agortu egin da). Editorial Diario de Navarra delakoak, Guía Montañera. LUR-eko standean oso guti saldu da. Saldu da. Saldu den gehiena, X. Kintanaren Linguistika orain arte. Beste standetan nahiko ondo saldu da. Zu zauden standean, ETOR-eko standean, Seksu hezibidea, Euskera Hire Laguna, Euskal Aditza, Urtekari 72 eta Langileria Historian Zehar.

Gero beste gauza bat nabaritu dut. Liburu berriak, nobedadeak, saltzen dira batikpat Esate baterako, Pio Barojaren El cura de Monleón agortu egin da eta azokaren azken egunean iritxi zen.

—Beste gauzarik esan nahi ahal duzu?

Bai. Begira, La Gran Enciclopedia delakoak laurehun mila pezta baino gehiago saldu du. Batez ere editorialako saltzaileak etorri zirelako. Nik uste dut beste editorialek ere gauza bera egin behar luketela.

Bestalde, liburuetan jakintsu bat edo behar genduke azoka honetan, jendearen galderei ongi erantzuteko.

Ah! Beste gauza bat. Standetan, euskeraz egin da: eta interesgarriena, bertako jendea, nahiz txarki nahiz ongi, izan da.

—Zerbait gehiago?

Ez. Eskerrak lagundu gaituzten guziei eta urrena arte!

Gorka Knörr

# EUSKAL ERRIETATIK



## legazpi

### ODOL-EMAILLEAK

Abenduaren 19an, Elkarte onek sortzen diran gastuak ordaintzeko txanponak bildu asmoz kalez-kale, borondate oneko eskakizuna antolatu zuan. Elkarteak ez baitu diruz laguntzen dion bazkiderik, eta beartasunetarako, eta bazkide berrien azterketak egiteko odola ateratzera datorren «Auto-Banko» delakoaren eralketak ordainduko baditu, nunbait saiatu bearko, leen esan dugun bazkiderik ez duan ezkero.

Elkartean, bazkide izateko, ez da derrigorrezko odola ematea. Edonork ez baitugu gaixo, edo zaurituei emateko baldintzazko odolik. Beragatik, odolez ezin dezakenak, diruz lagun lezaioke elkarteari, au ere bearrezko duan ezkero.

Irakurria dut errialde osoan, Legazpin dugula diru laguntzazko bazkederik ez duan elkarte bakarra. Zergatik ote?... Erritarrok odol ematearen ardura geiegi ez dugulako noski. Lagun urkoak eskeiñi dazaiokeen odolaren gora-beeran bere bizia daukan gaixo edo zauritu errukarrien abotsari, sarritan entzungor egiten diogulako, ain zuzen. Eskerrak, badugula salerostun biotz-zabal bat, odola eskeintzen dutenei ematen zaien bixigarri makautxoak, ongi-nai, utsez ematen dituan«. Txalogarria da onelako eskeintza.

Baditugu, lagunarteko, eta kirolzaleen elkarteak bazkide ugariekin, eta Odol-Emailleena erruki egintza garrantzitsua dalarik; Or konpon?...

Elkarte onen bazkideak, 140 inguru dira. Odola ematen dutenak 120-ren bat. Odol mota aztertzen ari diranak 15. Legazpik baditu 10.000 biztanle inguru; elkarte onen bazkide, % 1,5 bakarrik. Erriaren gaurko aurrerapena ikusita, gai ONI BURUZ atzean gaudela, ez al da egia?

### EGUBERRIAK

Igaro zaizkigu Eguberriak. Goiz giro alaitsua sortu ziguten, ikastetxeetako aurtxoek. Pandero lagundutako abesti goxorik jalki zizkioten Jesus aurtxoaren jaiotzari. Talde danetan berezi bearrezkoa, ikastolakoa izan genduen. Beren andereñoekin neska-mutikoak batean (ura samalda) bildu zirana, astotxoakin karro batean jaiotza ikusgarria zeramatela, soiñu, pandero, ta abesti xamurrez, kale eta auzoen alaigarri. Pakea eta Zoriona, erriari eskeiñiaz.

Arratsean erriko gazteria Olentzero berekin zutela. Txistu soiñu zoliak biribilketa joaz abeslarien lagun. Kale eta auzoak igaro ondoren, enparatzan gertatua zegoen Jaiotzari eskeiñi zitzaion Olentzero. Ondoren sukalde giro atsegiña, Jaiotza apaiñak argiz dizdiratsu. Gauerdia urbil dugu gurasoak sakon barrenduak dituzten oroitzapen kuttunak seme-alaba, edo billobatxoei sentipen goxo auek sustraitik erantsi naiz.

### URTE ZAAR-BERRIAK

Agurtu dugu, batzuentzat ona, ta beste askorentzat mingotsa izango zan urte zaarra. Nork berak aztertu beza barrena, zenbaterañoko onura atera diogun igaro zaigun urte oni. Ontasun auek samintasun mingotsak estaliak izango dituztela esango nuke. Amaikatxo gose, negar, zigor, espetxeratze, ta gerrate maltzur erakutsi du beintzat.

Asiera eman diogun berri onek, Paketa Maitasun oparoak ekarri bezaizkigu.

AN-ZAN

## oriako alegia

*Abenduaren 25ean Ikastolako umeek bere urte amaierako jaialdia eskeini ziguten, bere neurrian oso ondo eta aski gustagarria, ikasiak dituzten gauza adierazgarrienetakoak azalduak. Ikusleak ondo erantzun zuen. Ez hainbeste Urtarrilaren 2an ikusi ahal izan genduen «Apaiz Langile eta Gizon» antzerkian; gutxi ez bazen ere uste baino gutxiago.*

### *IKAZTEGIETA*

*Ikaztegietan ere mugitzen hasia da jendea; bazela garaia esaten digute bertako kezkatuek. Bakoitza bere aldetik ibiltzen oso ohiturik zegoen eta elkartasunari bultzada bat ematearren, sozietate bat egin zuten, kulturala batez ere, eta alde horretatik kezkatuko dela gehien izango delarik, ez baitugu ezagutzen tripa organizazioa eramaten ez duen soizetaterik, gutxi nahiz asko, hortan denok espezialistak gara..*

*Ikaztegietako honek bere ikastola arazoa argitzearren, Imanol Laspiurri hotsegin zitzaion, eta atzo, Urtarrilak 5, Gizona — Hizkuntza (Euskera) — Ikastola eta Herrian egin eta kezkatu behar dugun eran hitzegin zuen. Munduaren sorrera, formazioa eta bizia sortzea lehenen, lehenengo narrastietatik gizonaren formazioraino; tximuetatik ote gatozen ala ez aztertzeko era ere eman zigun. Hizkuntzaren sorrera, beharrak eraginda, eta herriek berarekiko ditugun eginbeharrak gizon libre izan nahi badugu; hizkuntzaren indarra ikastoletan edo irakaskintzan dagoenez; gurasoen haurrarekiko kezkatu beharra, ez baita nahikoa haurrek mundura «botatzea», haur horiek gizon libre izatera iristea baizik, bere nortasunaren jabe direlarik; eta gauza asko hitzaldi koxkor batean hain zehatz ematerik ez daudenak, eta jarraipen bat eskatzen dutenak.*

*Errege egunean, Martzelino Aizpuruak, zehatzago erakutsi zigun antzinako gizonaren eta biziaren berri, Aranzadi taldeak egindako lanak, eta Euskal Herriko leizezulo eta dolmenen berri, eta beste gauza harrigarriak.*

*Benetan interesgarriak hitzaldi bi hauek, ez baikara oraindino behar bezala ohituak, eta harritu egiten gara. Ikaztegietakoa benetan inportantea, kultura bat aberasten hastea erabaki baitu, beraz bere lanean segi beharrean da herri horretako jendea, eta noski, Alegia ere prest dago elkarri laguntzeko.*

*Bostok*

## ordizia

### JAKINTZA ASTEA 1971

**Literaturako txapelketa bat eratu zen Ordiziako Billafrankan "Jakintza astea" zela eta.**

**Goierriko idazle asko azaldu zen txapelketa hontara. Bi irabazlen artean erdibitua izan da 20.000 pezeta saria. Luis Aranburu Altunak eraman du zatirik haundiena aurrenekoari zegokionez. Andoni Sarriegi Eskisabel beasaindarrak bigarrena.**

**Hau dela eta "mahai borobil" bat antolatu da hil honen hamaseirako. Karlos Santamaria, Juan San Martin, Xabier Kintanak eta bi irabazleek osatuko dute "mahai borobilla". Gaia "Euskal kultura gaur" izanen da.**

**Gure zorionik beroenak gure bi idazle gazte eta argi hauei.**

**Larraitz**

## deustu

### UNIBERSIDADEKO EUSKAL KULTURA LANAK

**Patxi Altunak zuzendutako aste bat izan zen lehengo urteko Iraillaren azken astean euskera maixuak gaitzeko. Ehunen bat ikaslerekin asi ziren euskera ikasteko saioak.**

**Urriaren 13an asi zen euskal alfabetatzea ere etxeko euskera bakarrik dakitenentzat. Ehunen bat ibilli ziren beren euskera lantzen. Abenduaren 21ean amaitu zen ekinaldi au.**

**Euskal ikasketen saioak izanen dire otsaillean.**

**Ari dira zenbait batzorde inbestigazio lan interesgarriak moldatzen ere.**

**Diruz urri baldin badabil ere ari da bere ahalengitxoak egiten euskal gaietan. Indartuz joan dedilla.**

**Gorlizpe**

## deba

### GUK NOIZ?

Inguruko herrietan ari dira euskal alfabetatzearekin. Itziartarrek ere azaroan ekin zioten lanari. Badabiltza 25 lagun. Oso gustora dabiltza.

Eta guk zer? Bagenituen laster asteko asmoak. Baiña ez dugu ezer egin. Oraindik egin dezakegu, ordea. As gaitezen lanean erantzunkizunez.

### GAIZKI GAUDE

Gobernuak, heziketa arazoan agertu dituen asmoak ikusirik, garbi dago, Gipuzkoa Unibersidaderik gabe gelditukо del.a

Eta honekin kezkaturik egon behar dugu denok. Gure herriak aurrerakoi izan nahi badu behar beharrezkoa du Unibersidadea.

Gai honi buruz zerbait jakin nahirik izan giñan Zarautzen Agud Querol-en hitzaldian. Garbi mintzatu ere gure irakaslea. Onek zionez ezer gutxi edo bat ree ez dira arduratu Unibersidadeaz, ortarako zeuden gizonak. Herria ere ezjakiñean dago eta argitzeko biderik ez dago egunkarien bidez.

Horregatik erabaki dut herriz herri ibiltzea jendea esnatzearren.

Ikusten danez une larrian arkitzen da Unibersidadea Gipuzkoan. Eta hori giro-arrotzeko Unibersidadea lortzeko. Noizkorako Euskal Unibersidadea? Jarrai dezagun lanean etsi gabe.

## irun

### *URTEBERRION!*

*Asteroko onen arpidedun eta irakurle guztioi. Besterik ezean, noizikan beiñ emengo berriak igorriko ditudala agintzen det, ni baiño idazle oberik bada baiño.*

### *«ARTZAI DEYA»*

*Adiskide on batek illero biali oi dit «Artzai Deia». Nafarroako erritxo batean, Saldiasen, bertako Apaiz jaun langilleak bere artaldearentzat argitaldu oi du. Oso-oso ederki argitaldu ere. Asteroko Berrionaren azalpena, erri eta inguruko berri jakingarriak, umeen txokoa, izkirimiriren bat eta itzneurturen batzuk izan oi da bere gaia. Dana euskera txukun eta errikoian.*

*Saldiasko apaiz bat gure erri bakoitzean izango bagendu...*

### *JOANAK*

*Ditugu betiko gure artetikan Prantzisko Mendizabal Roteta, Mendeluko «Amesti» etxeko nausia; Jazinto Zubeldia Lasa, gizaseme gaztea oraindik, eta Joan Sagarzazu Jauregi, Ondarrabin. Irurak gure lagun zintzoak. Otoitz bat, irakurle.*

### *IZEN BERRIAK*

*Euskeraz eta erderaz karrikei ipintzeko asmoa artua dutela gure errigizonek jakiña det. Baita «Gurutze-Gorri» izeneko gaxoetxe gibelean dagoen karrikari «Baxurko Olerkaria» ipiñiko diotela ere. Asko alaitu gaitu berri onek.*

### *GABONZAARREZ*

*Txistulari sail aundi batek poztu zituan Irungo bazterrak. Alaxe Urte Zaarrari agur egin zitzakon. Bide batez, «Oargi Alaiki» indartzeko eskea egin zuten. Bidezko eskea nere iritzian. Izan ere bizitzeko beste erarik ez bait dute.*

### *TANTAI EDERRA*

*Zutitu digute gure erri erdi-erdiko enparantzan. «Gabon-Zuaitza» deitu oi zaion oietako bat. Ikusgarria da. Gauez batez ere, dana argi gorri-oriz apaindua egoten baita. Ez da irundarrik bera ikusi gabe gelditu danik.*

### *SARITUAK*

*Urtero bezela norgeiagoka bat antolatu zigun gure Erriko Etxeak. Ona emen sarituak izan diranak: «Jaiotzetan» «Urretxindorrak» izeneko sailla. Abestietan berriz, Tife anai-arrebak, «Txapelaundiak», Maritxo Maillo, Egiluze eta «Urretxindorrak». Eta Olentzerotan, Pio Baroja izeneko Ikastetxeak et J. Aranbururen «Baserri-Zaar».*

*«Ametsa» abeslariak eta Irungo Atsegiñakoak asko lagundu eta ornitu zuten.*

### *TXERTAKETAK*

*Umeestzat iragarririk daude. Dana utsean. Lau-bost eritasunentzat dira. Egunero arratsaldeko iruretatik bostak eta erdietara Gaxoetxean.*

*SAGUTXO*

## azkoitia

### GABON JAIAK

**Gabon egunean gure kaleetan izugarrizko bizitasuna nabaitu genduen. Anitz talde atera zen gabon kantak abestuaz, eta ziur aski ziren gure barnean alaitasun pixka bat sortu zutenak eta herria poztu zutenak. Goizean ikastolako umetxoak beren andereñoekin kalez-kale abeslari ikusi genituen. Ehun eta ogeitamarren bat haur, sei urtez beherakoak hain zuzen. Ikustekoa zen talde eder hura! Txalotzekoa noski endereñoek hartu zuten lana, oso ederki irakatsiak bait zeuden. Arras ongi abesten zuten. Eta baita dirua eskatu ere, ikustekoa zen, zorro handiak hartu eta nola eskatzen zuten! Denak, hots, herritarrak harriturik gelditu ziren, hain umeak bainan hain egokiak ikusirik, eta denak bat ziren, aleiga, andereñoek egin duten lana aipatzerakoan. Goizean zalantzarik gabe ikastolako umeak izan ziren herria poztu eta alaitu zutenak.**

**Arratsaldean berriz beste taldeen artean, Anaitasuna Mendizale Bazkunekoak eta Kimu elkartekoak genituen. Elkarte hauek biak bat egiñik batek abeslari taldea prestatu zuen eta besteak berriz "Olentzero" gertatu zuen. Eta horra nola hauei esker, Urola bailara honetan hain ezaguna dugun, bainan aspaldian ikusi geunden Olentzero azaldu zitzaigun. Aurtengo Gabon eguna noski, euskal giro eder batetan murgilduta, azaldu zaigu, bainan orain ez gaitezen ahatz, urte osoan eta bizi osoan garela euskaldun, eta euskaldun izate honek gauza asko eskatzen digula. Txalogarria irudit uzaigu elkarte hauek briek egin duten lana, lehenengo urratsak emanak dituzte, eta nola aurrera begira zer egiñik ez zaien faltako, beste zenbait ekintzatarako batuko dirala usten dugu. Ekin eta jarrai lana ugari bait da.**

### URTE-BERRIA

**Sartu gara 1972 urtean. Zer ezkeiniko ote digu Urte-Berri honek? Alde batetik izango ditugu gauza on eta ederrak eta bestalde berriz zer esanik ez gertakizun trixte eta tamalgarriak ere azalduko zaizkigu. Dena den guk honoko hauek lortzea edo lortzeko bideetan jartzea nahi genduke behintzat. Batetik "euskaldun" guzion batasuna eta bestetik gizonon nortasuna. Hau opa dizuegu guziori "Urte Berri zoriontsu bat" esaterakoan.**

**TXINPARTAK**




ural

Industri eta komerzial

Beroa, Otza eta

Aize - Akondizionatua

FRIGORIFIKO ERAKUSTOKIAK — BOTELLA-ONTZIAK

JELA MAKINAK — FRIGORIFIKO-ARMARIOAK

Eustasio Amilibia, 1 - Urrut. 42 02 86

Pl. de los Estudios, 1 - Urrut. 42 35 23. Ext. 88. DONOTIA



## elgoibar

*Edozein elkartetako Batzordeak eta gainontzeko Bazkideak ezberdin pentsatzen dute. Hau edozein elkartetan, bai gastronomikoetan, bai kultura aldekoetan, berdin ikastoletan eta batez ere Kooperatibetan. Hemen beste edonun baino nabariago azaltzen dira pentsa-molde ezberdinak.*

*Batzorde eta gainontzeko Bazkideen arteko ezberdintasuna zerbait bada ere Zuzendaritzatik langileriagana dagoena askozaz ere haundiagoa da. Zeren, Batzordean, behekoren bat egon daiteke, baina oso zaila da Zuzendaritzan egotea. Hemen bi maila bereizten dira: agintea dutenak eta bete beharra dutenak. Eta hauen pentsa-moldeetan ezberdintasun haundia dagoena ezin uka, nahiz eta helburu bakarra izan: enpresaren emankortasuna.*

*Eta hau lortzeko hartu ohi izan diren bideak, ez dituzte berdin lotzen agintea duena ta bete beharra duena. Gehienetan edo beti, behetik hasi ohi dira lotzen edo hauei nola gehiago rendidu erazi pentsatzen eta metodoak aldatzen eta hau egitean, oso kontuz eta takto haundiarekin egiten ez bada, onerako uste dalakoan, kalterako izan daiteke. Langileak badaki gero eta lotuago dijoala eta norbait bere inguruan gehiago lotze asmoarekin somatzen duanean, egoskor jarriaz bere aldakaitztasuna defenditu ohi du. Bestalde honek uste bide du, goikoen askatasuna larregia dela ta hori berdinean jarraitzen duanez gero, ez du ontzat hartzen bere gerrikoa bakarrik estutzea. Rendimendua gehitze hori, goikoengan hasita nahi luteke eta ez alderantziz. Gainera, behekoek, erdi-bidean dagoen harresiak etsipena ematen diote. Hau da; tornero edo ajustadore on bat moduloen erdi-bidetik ezin daiteke pasa, ostera goiko gehienak, gehiago irabazten ari dira.*

*Gizonak, akatsak berarekin ditu eta gizon txikiak akats txikiak eta gizon haundiak akats haundiak. Eta akats haundiak errazago ikus eta senti daitezke eta askozaz erre mingarriagoak izan ohi dira. Horregatik indarrez bete erazten diren zenbait agindu, ez dira probetxugarri. Gainera askotan badirudi, behekoei burua makurtu erazte honekin, goikoak indartsuago egitea nahi dala. Hau egiterakoan, indarraren indarrez baino arrazoiaren arrazoiz egitea mila bider probetxuagarriago daiteke. Gizon batek, zenbat eta talentu haundiagoa eduki hainbat eta ahal gehiago du iñor menderatzeko, baina menderatzea ez baida konbnezitzea.*

*—Zergatik ez? Bergarako hitzaldietan «a» organikoari buruz, Euskaltzaindiako batek esanarekin, oso pozik geratu ginen eta hala geratu bide zen Amatiño bera ere. Han ginanok jakinean geratu ginen, baina honelatsuko ezta baida sortzean Euskaltzaindia mutu egotea ez dakigu zergatik den. Bergaran esana, zergatik Argian azaldu ez? Nik uste bidezkoa litzaigukeela. «A» organikoari buruz ez gara euskal gaiztoak.*

*Etxe-Pe-tarrek*

## pasai donibane

*Adiskide batek lehengo astean hauxe esan zidan: «Hi, euskaldunok ez ote diagu merezi Eguberri eta Urte berri on bat opatzea Donibaneko kronikatxoan?». «Bai horixe!» erantzun nion. Izan ere, azkeneko hiru edo lau aste hauetan ez baitugu lumarik hartu eta ez da gogorik ere ondoren azalduko ditudan arrazoiengatik.*

*Herriko lantegiko Luzuriagako langileek Eguberri bezperan, egonaldiak edo paroak egin zituzten soldataz igotzeko eskatuaz. Egonaldi hauen aurretik, nagusi eta langileen artean, zenbait elkar-hizketa izan ziren; baina, ez ziren bat etorri. Egonaldi hauen ondoren, hogeitalau (24) langile bialduak izan ziren. Ez dira ez izan Eguberri xamurrak zenbait herriko eta inguruko familiarentzat!!*

*Azkenean, 24 langile huaek, lau eta bi hilabetetako zigorra jaso dituzte eta hauetatik bost, lantegiko eskubide guziak galduaz berriro sartzen diranean.*

*Bertatik ikusi dugu lan-uzte hau; ia-ia gure haragian bizi ere. Nolaz beraz, Eguberri on bat opa dezakegu gure zenbait anaia sufritzen ari dalarik? Bialduak izan diren langile hauek, une edo momentu gorriak ikusiko dituztela bi eta lau hilabete hauetan, ziur gaude. Gu prest gaude ahal dugun laguntza eskeintzeko. Zerorrek ere, irakurle horrek, hemen duzu zereginik egokia.*

*—oOo—*

*Errege bezperan, Umetxoentzat jialdi polita ospatu zen zine berrian. Ume talde dexente aurkeztu edo presentatu zen euskal gabon abestiak kantatuaz. Aurkezle edo presentadore bezela, Gema Sistiaga andereñoak egin zuen, den-dena euskeraz adieraziaz han bildu ginanoi.*

*Lehengo saria: Etxeberria senideak eta Jesusito Goikoetxea osatzen zuten taldearentzat izan zen. Bigarren: Arazeli Loinaz, Joxe Manuel Lopetegi, ñigo Oskila, Gotzone Goienetxea eta Francisko Garmendia izan ze.*

*Umeak poz-pozik irten ziran eta gurasoak areago. Gure zorionik beroenak eratu edo organizatu zutenentzat!*

*—oOo—*

*Usurbilgo antzerki (teatro erderaz) taldea etorri zitzaigun urtearen azkenean. Jende gutxi bildu omen zen. Izan ere, egun txarrak izan ziren haiek, goien aipatu dugun arazo edo problemarengatik. Gu pozaren-pozez joaten ohi gera; baina, gure kemena eta barrengo giroak ez ziguten laguntzen egun larri haietan. Baina, berriro etorriko dela Usurbilgo talde jatorra itxaropen osoa dugu.*

*—oOo—*

*Aurrezki Kutxa Munizipaleko kalendarioa eskuratu dugu, gure adiskide den Julen Etxanizi esker. Argazkiak (Euskal Herriko zenbait mendi) guztiz dotore eta bikainak dira, euskeraz eta erderaz argibide batzuk emanaz. Urteko hilabeen izenak, Euskaltzaindiak erabaki eta agindu zuen bezela denok erabiltzen genituela, uste genduen. Baina bai zera! Urteko hilabeteak besterik ez bada, ez ote gera bat etorriko euskaldunok?*

*—oOo—*

*Enrike Gametxoren emaztea den, Rosa Mari Ollokiegik bigarren semetxo sendo bat izan du. Beñat izenez bataiatua izan da. Bai izen hau eta baita Eñaut izena, Euskaltzaindiaren agiriarekin, ontzat emanak izan dira Pasaiko Herriko-Etxean. Zorionak bada, Enrike eta Rosa Mari adiskideei!!*

*—oOo—*

*Xerapio Gametxo 65 urte zitualarik hil zaigu, hilabete batzuk etxeratu-ta egon ondoren. Goien aipatzen genduen mutiko jaio berriaren aitona hain zuzen. Gure saminik beroena bere emazte eta seme-alabei, Enrike eta Jaime gure adiskideei batez ere.*

*IÑALURRETAk*

## aizarnazabal

URTAIN TXAPELDUN

Ez da aditzera emateko aiñakua gure errian Urtainen garainen garaipenak sortu zuen poza. Izan ere ia gurea baita. Emen kristautua beiñepeiñ. Elizaz, Ibañarrieta, Aizarnazabal bait zan orduan. Zorionak, Joxemanuel!!!

GURE ERRIA EGUTEGIAN

Donostiako «Gipuzko Aurrezki Kutxak» atera duan egutegi dotorean txit pozik ikusi degu gure erriaren irudi eder-ederra. An agiri da mendi-muiñoan gure Aizarnazabal bere eliza, erretore etxe eta abar. Apirilari dagokion orrialdea da gure erriari eskeiñia.

Irudi ori, dirudianez, Txiguatik edo Errezubitik artua dago. Nik neronek, egutegitik jaso eta etxean toki agirian jartzeko asmoa det.

LOIOLAN

Andre Mari Sortzez Garbiaren aurreko illunabarrean egin zan elizkizun zoragarrira emendik sail ederra joanik zan eta badakit ez zirala damututa etorriak. Erriko Erretore Jaunak lagundu zien joan-etorrian. Entzun genduanez Loiolako eliz aundi borobilla gazte utsez ondo betea egon zan. Ez dago gazteria dana okertuta. Ez orixe.

EUN ETA BI URTEKO

Andretxo bat, ormaiztegitarra bera eta Donostian aspaldiktik bizi dana aukeratu dute «Gipuzkoako amandre» izateko. Zorionak, Andre Pillomena Otaño!!

Guk ere badegu, gure errian, «Sarasola» baserrian ehun urte inguruko andretxo xahar bat. Guraso aizarnazabaldarretatik Bizkaiko Gernikan jaioa, karlixten gerratekoan emendik ihes egin eta ara joan behar izan zuten gizajoak eta an aurra izan.

EGUBERRIAK DIRALA-TA

Erritar asko ikusi degu gure artean. Erritik kanpora bizi diranarren, jaioterriak badu zeozer beste errik ez dutena. «Zer» orretxek eraginda noski, Eguberrietan eta erriko jaietan ez dute utsik egin oi.

Guztiei entzun diet ikaragarri atsegin izan zaiotela gure eliza berrituko elizkizun ederrak. Ez dirala non-nai ikusten. Saiatzen zaigu, bai, gure Erretore Jaun maitea elizkizun txukunak egiten, ezin diteke ori uka. Berdin umei egunero erakusten ere, alegiñak egiten ditu behintzat.

1972-garren urtea paketsu eta zoriontsu izan dedilla aizarnazabaldar guztientzat!! Alaxe opa diet biotz osoz.

*Txontxor*

## ixurtza

**Ixurtzako "Gerediaga"-tarren illobian emon jako lursantua, Atutxa eta Uriatar Sabiñeri.**

**Abadiñokoa semez, Ixurtza Bitaño-Etxebarriko Karmele Gerediagagaz ezkonduta egon da. Deustun bizi izan da.**

**Billboko Aurrezki Kutxan egin dau lana.**

**Euskaldun eta fededun jatorra. Lau seme-alabaren aita: Peru-Josetxu, Miren-Karmele, Jesus-en Miren-Terese, eta Jontxu-Imanol.**

**Bere seme-alabei euskeraz berba egiten erakutsi deutsie: Baita arduraz eta gogoz erakutsi be.**

**Bere arima Zeruan izan dedilla.**

**Goian Bego.**

**GARBIÑE a.e.**

## zestua

UDALETXETIK

Azken aldi honetako zaratak entzunik, herriko agintariek dituzten gorabeherak adierazteko, zein eratara aukeratuak izaten diren jakitea egokia litzakeala iruditzen zaigu.

Zestuako agintariak, hamar gizon dira guztira. Alkate bat eta bederatzi konzejal.

Konzejal hauetan, hirutik bat familietako buru direnek botazioz aukeratuak dira, beste hirutik bat herriko sindikatokoek (nekazari, industria gizon, dendari e.a.) hautatuak eta beste hirutik bat, ekonomia eta kultura erakundetakoak deitzen direnak, familia eta sindikato bideetatik sartu diren konzejalak aukeratzen dituzte, gobernadoreak izendatzen dizkien gizon batzuen artetik.

Beraz Zestuan, hiru herrigizon ditugu familia ordezkari, hiru sindikatotarrak eta beste hiru ekonomia eta kultura erakundetakoak. Bederatzi guztira.

Udaletxean diren arazoak erabakitzeko agintaritzak, «Ley de Regimen Local» delakoan zehaztuak daude eta alkatearen indarra gai gehienetan nagusiena dela esan beharrik ez dago.

Hiru urtetik behin izaten dira aldaketak hirukote bakoitzean (batzutan bat eta bestetan bi).

190. Azaroan gertatu zen Zestuan azkeneko aldatu aldia eta 1971. Otsailean beren karguez jabetu ziren konzejal berriak.

Gerraz gero ezagutzen ez genduena ikusi genduen zestuarrok, Ekonomia eta kulturazko erakunde ordezkari, erdaldun bat aukeratu zuten lehen zeuden konzejalak. Beste bi herritarren artean aukeratzeko era izan eta, zer nahi zuten beste konzejalek euskaltzaletasunik gabeko (eta hau ageri agerikoa zen) erdalduna udaletxera eramanda?

Aukeratu ondorenean, alkateak, erdaldun hau izendatu zuen hain zuzen alkate ordeko eta beste zazpiren bat komisioetako buru. Komisio guztietakoa, batekoa ezik.

Hamar hilabetez egon da komisio hoietako zuzendari, baina geroztik istilu latzak sortu dira alkate eta erdaldun honen, Sanchez-en, artean. Azkeneko bilera batetan, Abenduaren 20ko plenoan, zehazkiago esanda, salaketa gogorrak egin zizkion Sanchez-ek alkateari; arinki pentsatutako erabakiak hartzen zituela, astakeriaz betetako jokabidea zeramala, bere gisa eta udaletxetik aparte egiten zituela gauzak, gero azken azkenean itxura egiteko bakarrik plenoan erakutsiaz eta abar esanaz. Ezaugarri batzuk ere azaldu zituen.

Alkateak, h i t z e z k o erantzuna eman zuen, esandakoak gezurrak zirela aitortuaz eta beren arteko gorabeherak, azken aldi honetan baztertu xamarra edukitzeak batez ere bultzatu zuela Sanchez horrela mintzatzera adieraziaz.

Abenduaren 28ko bilera nagusian ordea, idatziz egin zuen alkateak bere azalpena, eta ondorenean, ez dakit zein artikuluk dion eskubideaz baliaturik, alkate ordetzatik eta komisio guztietako zuzendaritzatik bota egin zuen Sanchez konzejala.

Eta hauek guztiak ikusita, galderak sortzen zaizkigu:

Zergatik izan da ezin konpondu hau?

Eztabaida honetan, arazoez zestuarrok dugun pentsamolde eta nahiaz jabetu ezinak, hau da, integratu ezinak, bai ahal du zer ikusirik?

Joandako hamar hilabete honetan hain elkarturik zeudenak, alkatea eta Sanchez, zein herri arazok sakabanatu ote ditu?

Badakigu istilu honetan beste zortzi konzejalek ez dutela ia parterik hartu. Baina beste bi herritarretatik bat aukeratzeko egokitasuna izan eta Sanchez aukeratutakoek, noren alde daude eztabaida honetan?

Udaletxe barruan dauden konzejalak, alkateak eta Sanchez-ek esandakoak entzunda (kezkatzekoak benetan), zer eritzi ote dute? Eritzi hori herritarroi agertuko ahal digute?

Guk, jakin ditugun bezala esan ditugu gauzak hemen, baina bilera hauetako berri emango dituen aktak ikusi zai gaude. Horretaz gainera, jendea jakinaren gainean eduki beharra dagoela iruditzen zaigu eta argibide batzuk ematekotan aurkitzen dira herrigizonak, gure ustez.

Herrian hainbat behar eta buruauste dagoenean ikusten dugu agintarien arteko konpondu ezina.

BEGI

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65
DONOSTIA

Landola-erramintak — Lan-tresna guzietarikoak — Galtzairu kalibratuak — Leunketa gaiak
FERRETERIA UNZETA
EIBAR. Apartado 18. Ibarrezarra, 14
Urrutizkiña: 71.099

BOUTIQUE
Enekane
31 Agosto, 5
Urrutizkiña: 41 18 75
DONOSTIA

JOSTUNDEGIA
MODISTEGIA
UGARTE
Urbieta, 66
DONOSTIA

# BILINTX BERRIZ ERE

Paris'en egon al zera iñoiz? An bada kale aipagarri bat, Ravignan, artista aundien kalea. Ementxe bizi izan ziran luzero Paul Picasso ta Max Jakob. Kubo-bidez dabiltzanen arteko Picasso margolari ospetsuak ementxe zeukan bere lantegia bere estudioa; gaurko olertia bide berri bakanez zuzenazi zun Max'ek ere ementxe zeukan bere gela erdi-argitua. Biak ziran adiskide, biak ziran artista; biak alkarri lagundu oi zioten, txiro batek besteari bezela. Max'ek Picasso adoretu zun; bai ta Picasso'k Max ere; bein, onen olerki bat irakurri ondoren, bota zion: "Olerkari bakarra zaitugu gaur".

Donosti'ko alderdi zaarrean ere bada Esterniles kalea. Emen, berriz, lenago ezaguna zan "Café Oriental" esaten ziotena. Bilintx'en garaian, ementxe biltzen ziran poesi-zale batzuk, olertia maite zuten batzuk, Bilintx bera tarteko zala. Maiz kantatu omen zitun bere maitezko bertsoak entzule aien aurrean. Benito Jamar'ek "Poesia Euskara"-ri egin zion itzaurrean dioskunez, emen irakurri zizkion berberak Bekquer'en Rimak eta Aguilera'ren Elegias; bai ta Heine'ren maite-olerki batzuk ere, erderara itzuliak. Ementxe ezagutu zitun Campoamor'ren Doloras, ango tertuli-lagunak irakurrita geienbat. Oso eder zitzaizkion. Ortik, berezkoa jorratu ta lagunak azkortuz, poeta gaillen irten zitzaigun Bilintx arotza. Arnas emateak ere, zenbat balio dun!

Arrotz olerkari oiengandik ezer artu ote zun? Ba-liteke ezetz. Bizkarrondo izatez genun bertso-zale, olerkari, barnea itzez ustu bear zuna. Aurretikoen euskal bertso zarrak irakurriko zitun ziurrik asko, oler-legeak ba-zekizkin, gauzak nola eder esan eta azaldu ere bai. Beraz, erbesteko olerkari oien zerbait irakurri naiz norbaitek irakurrita ere, ta ortik biotza dardarazi ta gaiñezkakotu, Bilintx'ek bere-berea du idatzi zuen guztia. Heine, Bekquer ta Bilintx, irurok gai bat-bera erabilli ta kantatu arren, lenengo bien artean antzeko zerbait bada ere, aien eta Bilintx'en artean ez degu olakorik sumatzen.

Egiari berea emanik aitortu genezake, bada, Bilintx'en olerkia jator ta bere-berea duela. Txoriak, diotenez, ezergutxi ikasten du besteengandik: bakoitzak du bere kantaea berezia. Bilintx'ell berebat, bere kantaera zun, nai zuena uraxe goxo, errez ta gizonki abesteko. Maite-miña, ordea, Heine'k eta Bekquer'ek baiño ere argi, bizi ta giartsuago azaltzen digu sarritan. Gai ontan eztu, ez, iñork ere oindiño abestu, euskal-barrutian bederen. Bilintx'ek bezin ederki. Gai au, gero beti darabil zentzuz, inguru-minguru gabe, Heine'ren antzera iñoizka lizun-zulora laban egiteke. Muiño ontatik begiratuta ere, Bilintx beti euskaldun.

Auxe izan ere, Bilintx'en beste alderdi bikain bat: euskalduntasuna. Etzan esaera eder billa ibilli, lore pitxi billa; euskeraz pentsatu ta euskeraz mintzatu zan, euskal egikek eskatzen duenez: or aren neurtitz gartsuen doairik irtenena. Bere edozein bertsotan xurgatu genezake, argibide billa. 1862'ko uztaillaren 24'an Donosti'ko "El Guipuzcoano"-k argitara eman zun Loriak deritzana. Amairu ahapaldi ditu, zortziko txikitan; kanta-gai, berriz, dama bat, ustezko dama bat. Lauaxeta'ren Maitale kutuna antzera. Naiz-ta berau aren ederrenetarikoa ez izan, ez Heine'k ez Bekquer'ek eztute ain ederki osoturik. Ona amabigarren ahapaldia:

"Gozuaren birtutez
aren asnasiak
lo-arazitzen ditu
nere oñaziak;
usai oberik ez du
banatzen aiziak
loriak maitatuaz
baratzan pasiak".

Entzun askorik idatzi; edo, beintzat, etzaigu aren gauza aundirik guregaiño iritxi. Onela Aita Zabala'k: "Bilintx'ek ba-zun barrena sartuta seta txoro bat: bere lanak etzutela ezer balio. Esan omen zion bere samiñ-aldiak nolabait ere gozateko egiñak zirala ta etzula nai argitaratzerikk. Orregatik, gauza utsa ziralakoan, asmatu ta paperean jarri orduko puskatu egiten zitun askotan. Bilintx'en bertso asko galduta izan bear dute era ortaz". Guztiz, ezagun ditugunak, 37 olerki ta 5 itz-lauzko lantxo dira. Olerkietan zortzikok txikia erabilli oi zun geienean; txiki au nagusia baiño atsegiñako zitzaion nunbait.

1876'ko uztaillaren 22'an il zan gure alerkaria, Madrid'en euskal fueroak kentzeko agindua izenpetu zan egunean bertan. Lur ematerakoan, laguntza aundia izan zan, aideak, adiskideak..., gobernadorea eta alkatea ere bai. Santa Mari'ko elizan meza ta ondoren San Bartolomé'ko kanposantura; Teatro zarretik aurrera, soiñu-banda batek lagundu zion gorpuari, il soiñuak joaz. Geroago Polloe'ra ekarri lituzten ezurrak. Il-obiak, orain, goiko aldean Bilintx'en iduria du, ta beratxuago onela dio:

"Bilintx!
Donosti maite ontan zure
bertsoak entzun genituenok
esan genezake Jaunaren
miserikordiak kantatzera
joan ziñan ezkeroztik
zerua zera gozoagoa
izango dala".

Orrela bedi, Jainkoaren argi aunditan!

AITA ONAINDIA







Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

Bodegón
Alejandro
Alejandro'ren Bodega dago
Donosti'ko txoko baten,
bein ezagutzen dutenak zintzo
takite aruntz joaten.
Nai dan aukera ba-dezu beti
jaten bezela edaten,
oberik ezin arki diteke
merke ta ondo ematen.
Fermin Calbetón, 4
DONOSTIA

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:
JABON LAGARTO
Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi
JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.
¡JABON LAGARTO!

AÑATE OPARIAK
JATONTZI TA MAI - TRESNAK
Victor Pradera, 2
Urrutizkiña: 425700
DONOSTI




YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA




ORMAZABAL - DAR DUNIXI
ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA
TOLOSA
Urrutizkiñak:
Etxekoa 65 19 60
Landolakoa 65 19 33
URRETXUA
Urrutizkiñak:
Landolakoa 67 17 84
ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

# EDONONGO INJUSTIZIEN AURKA

*Bizkaira eta Nafarroara bi gotzain barri bialdu dituela-ta, hainbat idazti eta eskutitz irakurri izan doguz (Arostegi'tar Joakinek, Z. A. 460. 1971-XII-26, Bilbon, 1971ko abenduaren 15an, Abade eta fraile moltzo batek herriari egindako agiria; «Reflexiones del Consejo del Presbiterio de Bilbao con motivo del nombramiento de un nuevo Obispo residencial; Bilboko Seminariaren agiria; eta abar...).*

*Irakur gai honen idazle eta izenpetzaile guztiak, bat batean, eritzi garratz eta mingarri honetara heldu dira: «Nombramentu honei egin eran, euskal Herriaren eta bertan bizi garan kristauon nortasun eta eskubideak zapaldu euskuez».*

*Baina, oraingo zapakuntza honetan badago zerbait poztu eta kezkatu gaituana. Orain artean, zapalkuntza horren errudunak izendatu eran, tiroak beti toki bateruntz joaten ziran. Orain, ostera, argi ipiñi deuskue nortzuk izan diran geure euskal eta kristau izatean ankaperatu eta lau errialegaitik saldu gaituenak: Elizako agintari nagusiek ber berek, ain zuzen be. Izan be, «abade herrikoia» edo klero indigena, «Jainkoaren herria», «Elizako Jerarkia kristau-herriaren zerbitzurako...», «Eliza ez dago ezelako errejimen edo sistema politikori lotuta...», «Eliza, gizon eta herri txiro eta zapalduen alde...», eta zenbat honelako hitz eta esaera ez dira ez Marx-en liburutan irakurtzen, Elizako idazki ofizialetan baiño. Eta pentsaera eta jokabide eliztar honeik «pikutara» joan dira... Nork jaurtita? Elizako agintari nagusiak eurak. Arazo honetan parte hartu daben guztiak (Nuntzio, Gotzaineta abar), ahalegiñak ahalegin egiten dihardue, oraingo Gotzain honek, Aita Santuak berak bialtzen dauskuzala, guri sinistu erazoteko.*

*Egia esan, ez doguz zertan sinistu, geure herritar gizarajo honen begiak be nahiko doguz arazo guzti hau be joko bat dala argi ikusteko. Eta joko honetan be beste hainbestetan legez, Elizako agintari nagusiek gugaz jokatu dabela, eta euren jokoa aurrera eroan dabela, gure etagure Herriaren lepotik...*

*Hona hemen ba, gure gaurko zapalkuntzaren muiña: Elizako agintariak eurak dira Euskal Herri eta euskaldun kristauok zapaldu eta oinperatzen gituztenok. Eta zapalkuntza hori guri eta geure herriari lepo gaiñean ezarri eran, Eliza ber beraren pentsaera eta jokabide jatorrak Elizako agintariek eurek lurperatu dabez.*

*Zer egin? Hona hemen danon galdera. Eta galdera honi erantzutea nahi izan deutsue, zerbaitetan behintzat, aitatutako idazkiak. Erantzun jatorra eta fededuna ote da?*

*Idazki guzti honeitan jokabide bat onartzen da, bat behintzat: Elizako agintarien jokabidea agirian, Herriaren aurrean, kritikatzea, eta jokabide horren aurrean protesta bat egitea.*

*Hortik aurrera, «menpetasuna», buru-makurtzea eta honelakoak. Bakarrik, Bizkaiko 35 apaiz edo fraillek, izentatuko Gotzaiña «agirian eta betiko alboratuko dabe», eta «beste 84k gogo txarrez hartu baina baldintza jarriko deutso ez».*

*Norekin joan behar ote dogu? Kritika sakon eta errespetagarri bat egin ondoren, makurtu, bata bestearen ondoan ipiñi, eta lurrera begira aurrera doian «artaldetxo» bat izatera deitzen deuskuenakin? Edo-ta, Elizan bertan be injustiziaren aurka burruka egiten dihardutenekin?*

*Umetatik ikasi genduan zerbait zuzena etzana gurasoak agintzerakoan, gurasoei men edo jarraitu barik, euren agindua alde batera utzi behar genduala. Umetatik ikasi genduan zuzena ez dana egitera behartu geinkeezan iñor ez zegoela. Eta honela jokatzen dabenak «zapaltzaille» bihurtu eran, aginpidea edo agintzeko eskubidea galtzen dabela.*

*Elizako agintarien aurrean, agerian behintzat, iñoiz ez gera jaiki. Kristoren ordezkoak badoguz, zelan holakorik? Eta aginpidea, gizon eta herrien serbitzuan oinarritzen dala, ez ote deutse ikutzw Elizako agintariei? Edo-ta Eliz-agintariek «bulda» apartekoren bat ete dauke? Ebanjelioan ez behintzat...*

*Nagusi egin ondoren, kristauok, geure sinesmenak eraginda, injustiziaren aurka jokatu behar dogula be ikasi dogu. Gaur eguneko zatibitutako mundu honetan, zapaldu eta zapaltzaileen artean zatituta, hain zuzen be, kristauok nortzukin geure tokia daukagun, argi be arkiikusten dogu, teoriz behintzat. Eliza barruan, izan ezik. Elizako injustiziei buruz, oraindik, asko ta asko ilunpean dagoz.*

*Begira: zapalduekin bat egitea, «marxista izatea» ei da. Elizan bertan daukaguzan injustizien aurka egitea, «fedea galtzea» ei da. Zapaltzalleei euren hutsunak aurpegira jaurtitea, «kristauon batasuna apurtzea» ei da... Eta zenbat honelako!*

*Elizako agintariak «mito» bat egin doguz. «Kasta de intocables» bihurtu doguz. Ez agintari legez, gutxiago Kristoren ordezko eta Ebanjelioaren serbitzari legez, zor ez jakezan «pribiliejioz» eta «eskubidez» jantzi doguz. Honela, egoera negargarri honetara jautsi gara: nahiz-ta zapalkuntza dan agindu bat Eliz-agintariak emon, guk, burua makurtu eta obediti egin behar... Gotzainen nonbramentuak dirala-ta, hainbeste errazoi sakon eta protesta bizi egin dauskuezan apaizak be, hori egingo dabe: burua makurtu, eta bialdutako gotzaiña onartu!*

*Baiña guzurrezko eta lokartzaille dogun Elizarenganako menpetasunaren «mito» honi noiz arte eutsi behar ote deutsagu? Zergatik geure Eliza barruan zapalkuntza baten aurrean, kristauok, protesta ta kritika batean beti gelditu behar ote gara? Edozein eta edozelako agindu zapaltzailleren aurrean legez ez ete daukagu, Elizan be, aurka egiteko eskubidea eta egin beharra?*

*Gizon eta herrien serbitz ri dan Kristoren Elizan sinesten dogunok, geure Eliza eta Elizako agintariak jokabide jator horretara eroateko, zer bide daukagun badakigu: Ez sasi-menpetasuna, burruka eta aurka egitea baiño.*

*Eta Elizako jakintsuok, argi dagoana, ez mesedez illundu. Edo-ta ontzat hartu behar ete dogu oraingo zapalkuntza be gure Herriaren eta gure kristautasunaren onerako dala? Gizonak eta herriak zapalduaz, askatzen dirala ez dogu uste, ez, kristau dotriña danik.*

*Bizkaiko kristau talde abtek*

# Zuzentasunik ez dagon lekuan ez dago mezarik (eta II)

## ELIZGIZONEK GOZORIK ARKITU EZIN

Eta bukatzeko, apaizeri doakien gogoeta bat. Kezkaturik gauzka elizgizonen arazoak: Apaizek daukaten sentidurik arkitu eziña beren egitekoari, beren sakramentu-serbitzuari, kulto-alkartea dan Eliza orren barruan dutenari. Orregatik dago ainbat eta ainbat apaiz beti bezala meza ematearekin konformatzen ez dana, betiko jendeari sakramentuak emanaz etsitzen ez duena, guzi orri zerbait falta zaiola ikusten duelako. Are gehiago, berak eta jende askok ikusten duenez gero or badagoela zerbait sentidu aundirik ez duena. Ikus dezegun gure parroki askok eta askok nola funtzionatzen duten. Pentsa dezagun zer postura daukaten ainbat gaztek, langille-jende geienek eta millaka ta millaka erritarrek, gure parrokietan egitan danaren aurrean.

Nahi ta nahiezkoa da apaiz asko eroriak agotea. Gauza oiek zenbat eta gehiago sentitzen dituen eta areago. Fedea galdu ote dute bada? Okertu ote dira bada ta ez ote du «apaiz onak» izan nahi?

Begiratu batean iduri luken baiño seriogoa da arazoa. Nolanahi ere, arinkeri itxuragabe bat litzake ta iraina ere bai, apaizak ez dirala lehen bezin onak esatea, besterik gabe. Mesedez, serioago ar ditzagun gauzak. Nolabaiteko apaizak eta apaiz txaharrak beti izan dira. Gaur oinbesteko aldaketa ikusten badugu ta oinbeste apaizetan, beste gauza batzueri zor zaie.

Ta beste gauza oiek or daude. Or dago, asteko, gure erlijio-kizunek ezer gutxi esatea gure jendeari. Argatik iruditzen zaio askotan apaizari, gaurko gizonari ezer gutxi «adierazten» dioten ritoak egiten denbora pasatzen duela. Fedea galtzen ari ote da sakramentuetan? Oso besterik dala esango nuke nik. Sakramentuak zerbait esatea nahi izatetik (eta ez lortzetik) sortzen da kontenteziña ta etsipena. Askorentzat «krixtau-adierazpena« «erlijio-rito» uts biurtu da.

Baiña bada beste gauza bat, zuzen-zuzen arazoaren biotzera dijoana: Kulto-kizuna bizitzarengandik urrutiratu izatea, bizitzarekin ikusteko aundirik gabe. Garbiago esateko, kultora bidean dabiltzanek ez dutela euki oi guregizartean izen aundirik askatasun-burrukaren barruan, egiazko batasun-gintzan eta erritarren benetako aurrera-bide kontuan. Orra or gertakizun nahasgarria. Mezetara dijoazenek, elizako atez kanpotik utzi oi dituzte beren karguak, dauzkaten diru-azioak eta lur-jabetza aundiak, daramaten bizi-modua ta beste ainbat gauza.

## DITEKENA AL DA APAIZ ETA PROFETA IZATEA ALDI BEREAN?

Ortan dago arazoaren korapilloa. Elizgizonak, apaiz-egitekoa eta profeta-egitekoa, biak ditu berekin. Apaiz bezela ari behar du ta profeta bezela aldi berean. Ta nik galdetzen dut, baiña egin al dezazke biak aldi berean, gauzak dauden bezela egonik? Egia esan, nik duda egiten dut. Ta duda egiten dut, gaurko apaizkera alde batetik eta profetatza bestetik, biak serio artzen dituen gizona bere baitan bi erdi egiña arkitzen dalako ta eutsi-eziñeko tensio bat sortzen zaiolako bere barruan. Ez naiz dramatizatzen ari, ez-eta gehiegikeriz itzegiten. Ori kostante bat da biblia osoan eta zuzentasuna alde batera utzi duen kultoa salatzen asten diren profetetan. Ala gertatu zen Testamentu Zaharreko profetekin, behin baiño gehiagotan apaizen aurka jartzen zirala. Ori bera gertatu zan Krixtorekin, erabateko Profetarekin. Behin eta berriz du deskalifikatzen eta salatzen orduko kultoa ta saduzeo, apaiz eta lebitarren jokabi de ura.


Gaurko gizonari ezer gutxi adierazten dioten ritoak egiten denbora pasatzen duela, iruditzen zaio askotan apaizari.

Gure artean, apaiza apaiz bakarrik izan dan bitartean, ez da gorabera aundirik izan: Zenbat eta txukunago egiten zituen apaiz batek bere erlijiokizunak, orduan eta obea zan, eta zenbat eta gutxiago sartzen zan «apaiz zanez» berari ez zoazkion gauzetan ere, are ta obea zan. Eta ortan arrazoi zuten. Elizgizona apaiz besterik ez zanez gero, orrela behar zuen. Baiña orain elizgizonak, profeta ere izan behar du. Ta ori ez da apaizek sortu duten zerbait. Jesukrixto ez zan apaiz bakarrik izan. Profeta izan zan gaiñera ta erriaren Artzai. Ta mundu guziak daki Vatikanoko II-garren Kontzilioak Eliz-serbitzuaren teologia guzia eginkizun irukoitz orretan oiñarritu duela. Teologitzan ez gera sartuko; baiña edozeiñek badaki Elizaren Irakaskintza ta egungo teologia esan eta esan ari dirala, krixtau-alkartearen zerbitzariak apaiz-egitekoa, artzaiarena ta profetarena bete behar dituela. Guzia batera.

Apaiz eta Profeta aldi berean. Or dago koxka. Ez berez gauza alkartu-eziñak diralako. Eziñ ori, apaizgoa ta kultoa profetak salatu beharreko gauzetatik aparte egoteak sortzen du. Ori orrela dalako, alkartu-eziñak gertatzen dira bi eginkizun oiek pertsona berean. Or daude gertaerak gauza oiek frogatzeko. Denok dakigu badaudela apaizak betiko gauzak egiñaz bizi diranak eta zuzentasun eta bidegabekeri kontuan ezer jakin nahi ez dutenak. Badakigu, bestalde, badaudela apaizak mundu zuzenago bat eta gizarte egokiago bat sortzen alegin nagusia egiten dutenak eta kultoa alde batera uzten dutela diruditenak. Izan ere apaiza, egun kultoa dagonez, profeta bezela salatu behar luken zerbaiten serbitzuan ageri da. Ez kultoa berez salatu beharreko zerbait dalako, baizik-eta gaur dagonez, ezeren trabarik gabe agertzen dalako biziki okertua dagon gizarte baten barnean. Orrela apaizak, edo sentidurik ez dio arkitzen egiten duenari, edo-ta bere buruarekin burruka batean sartzen da.

Badakit askok ez dituztela planteatzen gauza auek nik emen adierazten ditudan bezela. Baiña ontan dago daramaten gurutzearen latza. Beraz, bide txaharra dala esan nahi du orrek apaizaren auzia ta zuzentasunarena aparte erabaki nahi izatea. Jainkoak betirako batu duena bakantzen saiatzen gerala adierazten baitu orrek: Egiazko kultoa ta zuzentasunaren ereintza bakantzen.

Bildurra galdu dezagula Jainkoatik, planteamentu ortatik ondoren guziak atera ditzagun. Dudarik gabe, askok aldegingo liguteke. Baiña, zertarako ditugu? Krixtorengandik ere askok aldegin zuten; eta ia bakarrik gelditu zanean, ale-ale batzukin bakarrik, galdera bat egin zuen bakar-bakarrik: «Zuek ere aldegin nahiean?» (Jn. 6, 67). Iñoiz pentsatzen dut ebanjelioko paraboIaren erakutsia betetzen asi beharrean gaudela: «Etziran otordura etorri lurrak, idi-pareak eta andreak zeuzkatenak. Etorri beharrekoak bakarrik etorri ziran: Pobreak eta bide bazterretan galduak. Aiena baita Jainkoaren erreinua».

Lehen egin dudan galdera berriro egiñaz bukatzen dut: Ekarri al ditezke beren artan gure Elizara ta gure Kultora, Krixtok eta Profetek egiten dituzten salaketak? Orain arte esan dudanetik ateratzen da erantzuna. Ezezkoa, jakiña, gure krixtau-kultoaren balio ukatueziñezkoa zalantzan jartzekotan. Siñestun batek idatzi lezaken disparaterik aundiena litzake ori. Arazoa sortzen du, gure liturgia askotan, zoritxaharrez, mundutik ihesbide bat gertatzeak. Ta berez, gu munduan izanarazteko erarik beteena izan behar luke. Ain zuzen, Krixto bere eriotzean bezelaxe.

(«Vida Nueva»tik jasoa)

LA CASA DEL CAFE
Juan Iriondo
San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

# 1971 - MUNDUA MUNDU - 1971

**1791 garren urtea 1972 garrenera eldu dan garai ontan, bost gertaera aukeratu ditugu joan dan urte onen bilduma bat egiterakoan. Beste gauza asko ere gertatu da, jakiña: ezin ahaztu Sortalde-Erdiko arazoa, Irlanda, Chile, prezioen igotzea, lan-ezaren ugaritzea... Baiña asi berri dan urteak egin behar duen jokoa jokatzeko bost egoera auek garrantzi berezia dutelakoan gaude.**

- **Txina O.N.U.-n sartu da eta Nixoni arrera on bat prestatzen ari da. Mundu borobillean, onez gero, ez dira aundi-aundiak bi, iru baizik. Zortzirehun milloe gizon itzaletik irten dira.**

- **Baiña or dago Irugarren Mundua. Bai dirala baztertu eta behartsu erri auek! Erri auek egiten diguten galderari zer erantzuten diogu? Ikus dezagun, adibidez, Pakistango egoera. Gosea eta nekea iñoiz baiño aundiago dira pakistandarren artean.**

- **Eta Europa zaharrean ez al da zer edo zer aldatzen ari, Brandt jauna U.R.S.S.-en onartua izan dan garai ontan, berarekin zin bat egin duen ontan? Orain 25 urte zapaldua gelditu zan Alemaniako kantzillerrak pake-bideak urratu ditu eta Pake Nobel Saria merezi ere, merezi izan du.**

- **Diruaren krisia, beste kinka. U.S.A. ez da munduko nagusi bakarra; dolarrak behera aldia ezagutu du. Eta diruaren krisis onek ekonomi osoaren larritasuna ekar dezake. Zer ikusteko ote gaude?**

- **Eta Elizak nola jokatuko du mundu berri ontan? Sinestunontzat ezinbesteko galdera. Sinodoa ere or dago, Eliza onen lekuko.**

1179 - URRIAK 25

### ZORTZIREHUN MILLOE GIZON ILLUNPETATIK IRTEN DIRA

Mao-ren Txina O.N.U.-n sartzen da. 76 boto alde, 35 aurka eta 17 zuri. Uda-erdi aldera, Nixon Txinara joateko zala jakin zanean, Txina erabat irten zan plazara. Ikustaldi au otsaillaren 21ean asiko da eta pakezale dan mundua zai zai dago. Indotxina aldean gudua gelditukoote da! Bestalde, Iparamerikar industri-jendea Txina aundiaren merkatu billa dabil.

Gaiñera, Txinak kazetariei ateak ireki egin dizkie, bere kultura-iraultza eta bere izkutu-joera alde batera utzirik. Lantokiak, lurrak, unibersitateak, uriak erakutsi dizkie. Eta ze rikusi dute, ikusi, kazetari auek? Txinarrek nahi aiña jaten dutela, aurreik osasuna dariela, dendak beteak, lurrak landuak, jendea ondo jantzia... Askatasun aundirik ez badaukate ere, goserik ere ez. Sabelaren morrontza galdu dutela behintzat.

1971 - MARTXOAK 25

### BENGALA: AMAR MILLOE PERTSONA IHES EGIÑIK, GOSEA, GERRA

Egun au munduko kondairak eman duen tristeenetakoa bezala geldituko da. Egun ortan Pakistango Lelak, represio ikaragarria asi zuen hendakari zan Yahya Khan jenera-Sortaldeko Pakistango lurretan, erri onen askatu nahia zapalduz. Bengalarrek, 1970garren abenduaren an, autonomiaren alde eman zuten botoa. Baiña Yahya Khan-ek, sartaldeko burgesiaren ordezkari danak, ezin onar zezakean Sortaldeko lurraren irabaziak galtzea. Eta orduan, zigorra bota zuen: Mujibur Rahman errikoia giltzapean sartu eta 80.000 gudari erriaren zapaltzaille biali, erriak erre, berekin bat ez zetozenak il eta besteak Indiaruntz ihesean jarri. Amar milloe kristau ihes egiten...

Bitartean, garai berean, benetako gerra latza. Zubiak obta, bideak autsi, lurrak ezin landu. 1970eko ziklona gutxi bazan, orain gosea eta Indiarekin gerra berria. Zenbat sufri dezake erri batek!



Joan dan iraillean elkartu ziran Brejnev eta Brandt jaunak Itsaso Beltzean.

1971 - URRIAK 20

### WILLY BRANDT, ALEMANEN ETA ESLABOEN TARTEKO

Bost milloe pezeta t'erdiko Nobel Saria eman zaio Alemaniako Kantziillerrari, Alemania eta U.R.S.S. en artean pake bideak sortarazten saiatu dalako. Sari onen esan nahiaz jabetzeko, gogoratu egin behar dugu nola ibilli ziran Hitler-en gudariak Polonian, Ukranian, Rusian, Yugoslabian, Txekoslobakian, Bigarren erra Nagusian. Gizon-maillara ez omen ziran iristen erri eslabiar auek, gudari aleman aien ustetan. Eta gauza maillan eraso zieten. Eslabiar erri auek, beraz, ikaragarrizko gorrotoa diete alemanei. Brandt Kantzillerrak Varsovia-ko ghettoan belaunikatu zanean bazekian zer egiten ari zan: Barkamena eskatu aleman guzien izenean. Esan beharra dago Willy Brandt ez dala edozein alemaniar. 1933 urteaz geroz nazismoari uko egin zion. Sortaldekoek sinetsi diote. Willy Brandt-ek gerrak utxitako mugak onartu ditu, bi Alemania badirala aitortu, beraz.

1971 - ABUZTUAK 5

### SARTALDEKO EKONOMIA DAGO

Bi erabaki garratz artu zituanean —lan-sariak geldierazi eta kanpoko erosketari ehuneko 10 erantsi— Nixonek argi esan zion munduari U.S.A.ko —beraz Sartalde guztiko— ekonomia gaixorik zegoela. Zaindu egin behar orain.

Arazo onek bi alderdi ditu: batetik diruaren krisia eta bestetik ekonomi eta sozial problemak. Biak elkarri loturik baldin badaude ere, ez dira gauza bera. Izan ere, diruaren balioa ez da ezin mugituriko gauza, 1944garren urtean asmatutako era bat baizik. Bretton-Woods-eko erabakiak ez ziran betirako, alajaiña. Dolarrak urrea balio baldin badu eta gaur kalean urrea baiño sei bider gehiago dolar bada, gauza aldatu dala aitortu behar. Orain dolarraren balioa gutxitu egin da eta berriz asmatu beharko joko-legeren bat aurrerantzerako. Urte ontarako lana.



Limako kaleetan, mixeria: Zuzentasunik eza munduan.

1971 - IRAILLAK 30

### ERROMAKO SINODOAN APAIZEN EZKONGETZA ETA ZUZENTASUNA MUNDUAN

Elizaren Irugarren Sinodoa. Azaroaren 6an bukatu zan. Illabete osoan 212 gotzai lanean. 140, Gotzai-Elkarteek aukeratuak, 10, frailleen nagusiek aukeratuak, 10 erromako bulegoetatik aukeratuak eta 25, Aita Santuak deituak. Milla bat kazetarik eskatu zuten sinodoaren berri emateko baimena, iraultzaille izango zala espero bait zan. Baiña sei urtetako atzerakada eman zala, zioten albistariek. Egia esan, Sinodoa ez da Konzilio bat, Aita Santuaren aholkulari baizik. Askok eta askok beste zerbait uste zuen, baiña Sinodoak ez zedukan erabakirik artzerik.

Aztertzeko ziran bi gaiak garrantzi aundikoak ziran: apaizaren egoera, eta zuzentasuna munduan. Aita Santuak bere iritzia agertu zuan, zelibatoaren alde. (Enziklika 1967 garrenean eta Villot Kardenalari 1969 garrenean). Baita zuzentasun arloan ere (Roy Kardenalari, 1971 garrenean). Gotzaiek, Sinodoan, ez duten Aita Santuak lehendandik esandakoei eutsi besterik egin, zelibato kontuan. Zuzentasun bidean berriz, aurrera jo dutela dirudi. Erri aberatsek erri pobreak menperatzen dituztela esan du.

Azteko eskubidea dutela erri guztiek; Elizak berak ere bere barruan zuzentasunez jokatu behar duela eta diru-kontuak denen aurrera azaltzeko.

OLALDE

Gráficas Navasal - P. Adoain, 1 - Pamplona, España'n egiña - D. L. NA. 80-1963